III) 6 lanpostu judizial Bilboko Auzialdiko Auzitegian; horietako bat banku-kontratazioko baldintza orokorren gaiak soil-soilik justifikatzen du. Edonola ere, zehaztu beharra dago 3. lanpostuak betearazpeneko lan-kargari dagokionez ezaugarri bereziak dituela, eta horren ondorioz bere datu globalak (% 237) nabarmen gainditzen du barruti judizialaren batez bestekoa (% 160-170 inguru). Planta judiziala zabaltzeko Zirriborroan aurreikusitakoa berresten bada (atal honetan bost lanpostu judizial sortzea aurreikusten duena), lanpostu judizial gehigarri bakarria ezartzea baino ez litzateke beharrezkoa izango.

III) Beste 2 edo 3 lanpostu Donostiako Auzialdiko Auzitegian; horietako bat banku-kontratazioko baldintza orokorren gaiak justifikatzen du. Lanpostu judizialak sortzeko Proiektuan aurreikusitakoari eusten bazaio (atal honetan lanpostu judizial bat gehitzea aurreikusten duena), gutxienez beste lanpostu judizial bat beharko litzateke, eta bi ere izatera irits liteke.

Zibil Atala. Bilakaera 2023-2024-2025




2.- AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO INSTRUKZIO-ATALAK.
II. taula.

Auzialdiko Auzitegietakoko Instrukzio-ataleko lanpostu batek ere ez du % 130a gainditzen.

Instrukzio-ataletako hiru lanpostuk baino ez dute gainditzen esleitutako lan-kargaren % 100a (Donostiako 3., 4. eta 5. lanpostuek, hain zuzen).

Kontuan hartu behar da, 2026. urteari begira, sexu-indarkeriaren gaiak 2025eko urriaren 3tik aurrera Emakumeenganako Indarkeriaren Atalei esleitzeak ekarriko duen beherakada.



3.- AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO GIZARTE-ATALAK. III.
taula


Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Gizarte-atala da jurisdikzio-orden honetan lan-kargarik handiena izaten jarraitzen duena. Atal hori osatzen duten lanpostu guztiek gainditzen dute esleitutako lan-kargaren % 130. Aipatutako % 130eko gehiegizko karga konputatuta, beste 3 edo 4 lanpostu judizial beharko lirateke egitura lan-karga onargarri batekin gara dadin. Lanpostu judizial berriak sortzeko Errege Dekretuaren Proiektuan aurreikusitakoa betetzen bada (atal honetan beste lanpostu judizial bat sortzea aurreikusten duena), egiturazko defizitak jarraituko luke atal honetan. Horregatik, hiru lanpostu judizial sortzea proposatzen da Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Gizarte Atalerako.

Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Gizarte Atalean bada lanpostu judizial bat (1. lanpostua) % 130a gainditzen duena eta gainerakoen aldean karga nabarmen handiagoa duena (gainerakoak % 112 eta % 123 artean dabilta). Aztertu beharko litzateke banaketa-arauak berrikusi behar diren edo datuaren kalitate-arazo bat den.

Gasteizko Auzialdiko Auzitegiko Gizarte-atalean lanpostu judizial guztiak hurbiltzen dira % 130era.

Eibarko Auzialdiko Auzitegiko Gizarte-atala lan-kargaren % 92an kokatzen da.

Lan-arloko Atala. Bilakaera 2023-2024-2025



4.- AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ATALAK. IV. taula

Zigor-arloko jurisdikzioa

Atal batek ere ez du sarrera-moduluaren % 100a litzatekeena lortzen. Hartara hurbiltzen dira Donostia (% 98), Gasteiz (% 96) eta Barakaldo (% 93).


Kontuan hartu behar da, 2026. urteari begira, sexu-indarkeriaren arloko eskumena 2025eko urriaren 3tik aurrera bere gain hartzeak dakarren gehikuntza.

Aurreikusita dago aurten Barakaldoko Emakumeenganako Indarkeriaren Ataleko 2. lanpostua sortzea.

Planta judiziala zabaltzeko Errege Dekretuaren Proiektura helarazitako aurreikuspena berresten bada (aurreikusitako bi JATS

lanpostuak Donostiako eta Gasteizko Emakumeenganako Indarkeriaren Ataletako bigarren lanpostu bihurtzeari dagokionez), jurisdikzioaren ikuspegitik, beharrezko baldintzak egongo lirateke eskualdekatze judiziala egiteko, Gobernu Sala honen ekimenean jasotako baldintzetan.


Emakumeen aurkako indarkeriaren Atala. Penala. Bilakaera 2023-2024-2025



Jurisdikzio zibila.

Indarkeria-epaitegietan izaera zibileko gaien ehunekoa oso baxua da oraindik: % 6 eta % 11 artekoa.


Emakumeen aurkako indarkeriaren Atala. Zibila.
Bilakaera 2023-2024-2025

**5.- AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO ZIGOR-ATALAK****BETEARAZPENIK GABEKO LANPOSTU JUDIZIALAK**

Donostiako Auzialdiko Auzitegietaiko Zigor Atala osatzen duten lau lanpostu judizialeetatik hiruk % 130a gainditzen dute (1., 2. eta 5. lanpostuek). 3. lanpostua aipatutako mugara hurbiltzen da (% 125). Gehiegizko karga konputatuta, eta gehiegizko hori elkarren segidako urteetan gertatu dela kontuan hartuta, beste lanpostu judizial bat beharko litzateke Donostiako Auzialdiko Auzitegietaiko Zigor Atalean.

Genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren arloko eskualdekatzea gertatuko balitz, beste lanpostu judizial bat beharko litzateke Bilboko Auzialdiko Auzitegietaiko Zigor Atalean; izan ere, gaur egun Barakaldoko Auzialdiko Auzitegietaiko Zigor Atalak dituen delitu horiek epaitzeko karga bere gain hartuko luke, lanpostu judizial guztiek % 117 eta % 125 arteko lan-karga jasaten duten bitartean.

Zigor Atala. Betearazpenik gabe. Bilakaera
2023-2024-2025




BETEARAZPENA DUTEN LANPOSTU JUDIZIALAK

Barakaldoko Auzialdiko Auzitegiko Zigor Ataleko lanpostu judizialek % 130a gainditu dute (zehazki, % 142 eta % 143). Eskualdekatzea gertatuz gero, Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Zigor Atalak epaitzeko eskumena bere gain hartzearen ondorioz, Barakaldoko Zigor Ataleko lan-karga gutxitu egingo da. Bestela, bilakaera aztertu beharko da, atal honetan beste lanpostu judizial bat jartzea bidezkoa den pisatzeko (bi urte daramatza % 130etik gorako kargarekin).

Gasteizko Auzialdiko Auzitegiko Zigor Ataleko lanpostu judizialak lan-kargaren % 100era hurbiltzen dira.


Zigor Atala Betearazpena dutenak. Bilakaera
2023-2024-2025



BETEARAZPENENKO LANPOSTU JUDIZIALAK

Bilboko eta Donostiako Zigor Ataletan betearazpenaren arloan eskumen eksklusibo eta baztertzaila duten lanpostu judizialek % 130etik gorako lan-kargak izan dituzte azken hiru urteetan (Donostian izan ezik, 2024. urtean % 126ko lan-karga izan baitzuen). Egoera larriagoa da Donostiako Auzialdiko Auzitegiko lanpostu judizialean; izan ere, Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Zigor Ataleko 7. lanpostuak laguntzako epaile bat (JAT bat) du 2017tik. Beraz, beste lanpostu judizial bat sortu beharra dago zigor-betearazpenean eskumen baztertzaila eta, hala badagokio, eksklusiboa duten bi ataletan, lehentasunez Donostiako Auzialdiko Auzitegian.

Zigor Atala Betearazpenak. Bilakaera
2023-2024-2025



6.- AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO FAMILIA-, HAUR- ETA GAITASUN-ATALAK


Atal sortu berriak dira.

Familia eta adingabeen osagaiaren lan-karga % 45 eta % 76 artean dago. Salbuespen bakarra Barakaldo da, % 94ko lan-karga baitu.

Desgaitasunaren osagaiak datu altuak erakusten ditu Bilboko Auzialdiko Auzitegian, 14. lanpostu judizialak % 280ko batez bestekoa izan baitu azken urteetan.

Gobernu Salak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrak urte honetako urtarilaren 26ko bilkuran hartutako akordiotik abiatuta, atal horien egoera urte honetako irail-urrian ebaluatzea erabaki zuen, hala badagokio, espezializazio-akordioak aldatzea proposatzeko. Bitartean, lanpostu judizial horri laguntzeko neurriari eutsi beharko zaio.


Familia, Haur eta Gaitasun Atala. Bilakaera 2023-2024-2025



7.- AUZIALDIKO AUZITEGIKO ESPETXE ZAINTZAKO ATALA

Azken hiru urteetan lan-kargaren % 130a gainditu du (% 136, % 153 eta % 147). Beste lanpostu judizial bat sortu beharra dago atal honetan.


Espetxe Zaintzako Atala. Bilakaera 2023-2024-2025



8.- AUZIALDIKO AUZITEGIKO ADINGABEEN ATALA

Lanpostu judizial batek ere ez du sarrera-kargaren % 60a gainditzen.

Adingabeen Atala. Bilakaera 2023-2024-2025




9.- AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO MERKATARITZA-ATALAK

Sarrera-banaketa ez da homogeneoa izan. Donostiako 2. lanpostuan % 167a lortu da, 1. lanpostuaren % 98aren aldean. Bilbon ere % 130 gainditu da bi organotan, eta horien arteko banaketa ez da ekitatiboa, sarrerak % 108, % 133 eta % 147 baitira.


Aipatutako desberdintasunak zuzentzeaz gain, sarrera-kargaren etorkizuneko bilakaera aztertu beharra dago, planta judiziala zabaltzea planteatzeko.

Merkataritza Atala. Bilakaera 2023-2024-2025



10.- AUZIALDIKO AUZITEGIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ATALAK

Batek ere ez du gainditzen lan-kargaren % 79a




11.- AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO AUZIALDIKO ATALAK

Zigor-gaien bolumenari bere horretan eutsi zaio, oszilazio txikiekin. Irungo 1., 2. eta 4. lanpostu judizialek baino ez dute erakusten % 100etik gorako lan-karga. Bereziki aipagarria da 4. lanpostu judizialaren egoera, % 163ko lan-karga baitu, eta aurreko bi urteetan ere % 130etik gorako karga izan zuen (zehazki, % 153). Egoera hori alderantzikatu egin daiteke genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren arloko eskualdekatzea gertatuz gero; izan ere, eskumena Donostiako Auzialdiko Auzitegi Indarkeria-atalera aldatuko da.


Gai zibilen bolumenak hazkunde orokorra izan du, eta horren ondorioz, Auzialdiko Auzitegi batzuetan % 130a gainditu da (Tolosako

4. lanpostu judizialean; Azpeitiko 1. lanpostu judizialean; Bergarako 4. lanpostu judizialean; Eibarko 2. lanpostu judizialean; Irungo 4. lanpostu judizialean; eta Durangoko 1., 2. eta 3. lanpostu judizialean). Durangok baino ez du gainditu % 130a azken hiru urteetan.


Aztertu beharko da genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren arloko eskualdekatzeak, gertatuz gero, zer eragin izan dezakeen Auzialdiko Auzitegi horietan zigor-arloan. Nolanahi ere, Irungo eta Durangoko ataletan beste lanpostu judizial bat sortzeko aukera baloratu beharko da, arlo zibilean eta instrukzio-arloan duten lan-karga kontuan hartuta.



Zibil eta Instrukzioko Atala. (Penala) Bilakaera
2023-2024-2025



Probintzia Auzitegieta bilakaera (Zibil Atala)
2023-2024-2025



12.– PROBINTZIA AUZITEGIAK

Arlo Zibileko Atala


Atal guztiek % 130 gainditu dute ekitaldi honetan. Muga horren gainteko gehiegizko kargak hiru lanpostu judizial sortzea justifikatzen du, bat Probintzia-azitegi bakoitzeko. Planta judiziala zabaltzeko Errege Dekretuaren Proiektuan aurreikusitakoa berresten bada (azitegi bakoitzeko lanpostu bat aurreikusten duena), lan-kargarako planta judizial egokia izateko aurreikuspenak beteko lirateke.

Zigor-atala

Zigor-atalek ez dute % 130a gaintitzen.

Guztietan gehitu da lan-karga.


Probintzia Auzitegieta bilakaera
(Zigor-arloko Atala)



13.- JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA

Sala bat ere ez da iristen sarrera-moduluaren % 100era.

Gehikuntza izan da Lan Arloko Salan, eta jaitsiera, berriz, administrazioarekiko auzien salan eta arlo zibileko eta zigor-arloko salan.



ONDORIOAK

- 1.- Auzialdiko Auzitegietak Atal Zibilek honako lanpostu-gehikuntza hauek behar dituzte: bi lanpostu Barakaldoko Auzialdiko Auzitegian, sei Bilboko Auzialdiko Auzitegian, bi Donostiako Auzialdiko Auzitegian eta lau Gasteizko Auzialdiko Auzitegian. Guztira hamalau lanpostu judizial dira.
- 2.- Planta judiziala zabaltzeko egungo zirriborroa aurreikusitako baldintzetan onartzen bada, beharrezko lanpostu judizialak honako hauek lirateke: bat Barakaldon, bat Bilbon, bat Donostian eta beste bat Gasteizen (bereziki Merkataritza-atal bat sortzen bada). Guztira, beraz, lau lanpostu judizial.
- 3.- Bilboko Auzialdiko Auzitegiako Gizarte Atalak beste lau lanpostu judizial behar ditu.
- 4.- Planta judiziala zabaltzeko egungo zirriborroa aurreikusitako baldintzetan onartzen bada, hiru lanpostu judizial beharko lirateke Bilboko Auzialdiko Auzitegiako Gizarte-atalean.
- 5.- Donostiako Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak beste lanpostu judizial bat behar du, baldin eta eskualdekatzea Gobernu Salak proposatutako baldintzetan onartzen bada. Aukera hori gauzatu daiteke planta judiziala zabaltzeko zirriborroan aurreikusitako lurralde-atxikipeneko epaile lanpostu bat Donostiako Auzialdiko Auzitegiako Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Ataleko bigarren lanpostu bihurtuta.
- 6.- Gasteizko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak beste lanpostu judizial bat behar du, baldin eta eskualdekatzea Gobernu Salak proposatutako baldintzetan onartzen bada. Aukera hori gauzatu daiteke planta judiziala zabaltzeko zirriborroan aurreikusitako lurralde-atxikipeneko epaile lanpostu bat Gasteizko Auzialdiko Auzitegiako Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Ataleko bigarren lanpostu bihurtuta.

- 7.- Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Espetxe-zaintzako Atalak beste planta judizial bat behar du.
- 8.- Donostiako Zigor Atalak beste bi lanpostu judizial behar ditu; horietako bat betearazpenaren arloan eskumen eskusiboa (ez-baztertzailea) duena.
- 9.- Bilboko Zigor Atalak beste bi lanpostu judizial behar ditu — horietako bat betearazpenaren arloan eskumen eskusiboa (ez-baztertzailea) duena—, baldin eta eskualdekatzea Gobernu Salak proposatutako baldintzetan onartzen bada. Onartzen ez bada, beste lanpostu judizial bat beharko litzateke, betearazpenean eskumen eskusibo eta ez-baztertzailea duena.
- 10.- Durangoko Auzialdiko Auzitegiko Atal Bakarrek beste lanpostu judizial bat behar du.
- 11.- Irungo Auzialdiko Auzitegiko Atal Bakarrek beste lanpostu judizial bat behar du.
- 12.- Familia, Haur eta Gaitasun Atalek barne-berrebaluazioko azterketa bat beharko dute lanpostu judizial bakoitzaren espezializazioaren esparruari dagokionez, Gobernu Salan erabaki zen bezala.
- 13.- Datuaren kalitatea edo banaketak berrikusi beharra dago epaile-barruti batzuetako Auzialdiko Auzitegien artean; izan ere, desberdintasun oso garrantzitsuek jarraitzen dute Bilboko eta Donostiako auzitegieta Atal Zibiletan, Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Gizarte Atalean eta Auzialdiko Auzitegi mota hori duten barruti judizial guztietako Atal Bakarretan.

8.2.- PLANTA JUDIZIALA HANDITZEKO PROPOSAMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PREMIA LARRIENEI ERANTZUTEKO

Azken urteetako lan-karga kontuan hartuta (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Justizia Ministerioaren arteko 2018ko akordioan jasotako kargaren % 130etik gorakoa), honako lanpostu judizial hauek sortzea proposatzen da:

A) PLANTA JUDIZIALA ZABALTZEKO ERREGE DEKRETUAREN ZIRRIBORROAN AURREIKUSITAKOA BERRESTEN EZ BADA

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO ATAL ZIBILAK

- Barakaldo: 2
- Bilbo: 6
- Donostia: 3
- Gasteiz: 4

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO ZIGOR ATALAK

- Bilbo: 2
- Donostia: 2

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO GIZARTE ARLOAK

- Bilbo: 4

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ATALAK.

- Donostia: 1
- Gasteiz: 1

AUZIALDIKO AUZITEGIKO ESPETXE ZAINZAKO ATALA

- 1

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO ARLO BAKARRAK

- Durango: 1
- Irun: 1

ARABAKO PROBINTZIA AUZITEGIA

- 1(Atal Zibila)

BIZKAIKO PROBINTZIA AUZITEGIA

- 1(Atal Zibila)

GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIA

- 1(Atal Zibila)

GUZTIRA: 31**B) PLANTA JUDIZIALA ZABALTZEKO ERREGE DEKRETUAREN ZIRRIBORROAN AURREIKUSITAKOA BERRESTEN BADA**

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO ATAL ZIBILAK

- Barakaldo: 1
- Bilbo: 1
- Donostia: 2
- Gasteiz: 1

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO ZIGOR ATALAK

- Bilbo: 2 (bat Zigor Betearazpenean eskumen eskusibo eta ez-baztertzailea duena)
- Donostia: 2 (bat Zigor Betearazpenean eskumen eskusibo eta ez-baztertzailea duena)

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO GIZARTE ARLOAK

- Bilbo: 3

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ATALAK.

- Donostia: 1
- Gasteiz: 1

AUZIALDIKO AUZITEGIKO ESPETXE ZAINZAKO ATALA

- Bilbo: 1

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO ARLO BAKARRAK

- Durango: 1
- Irun: 1

GUZTIRA: 17

**C) PLANTA JUDIZIALA ZABALTZEKO AURREIKUSPENAK
BERRESTEN BADIRA, LURRALDE-ATXIKIPENAKO BI
EPAILE (JAT) LANPOSTUAK DONOSTIAKO ETA
GASTEIZKO AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO INDARKERIA
ATALETAKO LANPOSTU BIHURTUTA**

- Barakaldo: 1
- Bilbo: 1
- Donostia: 2
- Gasteiz: 1

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO ZIGOR ATALAK

- Bilbo: 2 (bat Zigor Betearazpenean eskumen eskusibo eta ez-baztertzailea duena)
- Donostia: 2 (bat Zigor Betearazpenean eskumen eskusibo eta ez-baztertzailea duena)

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO GIZARTE ARLOAK

- Bilbo: 3

AUZIALDIKO AUZITEGIKO ESPETXE ZAINZAKO ATALA

- Bilbo: 1

AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO ARLO BAKARRAK

- Durango: 1
- Irun: 1

GUZTIRA: 15

9. — ESKUALDEKATZEA

“EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GENERO-INDARKERIAREN ETA SEXU-INDARKERIAREN ARLOKO ESKUALDEKATZE JUDIZIALARI BURUZKO EKIMENA

I.- Premisak

1.- Gobernu Salaren 2025eko ekainaren 27ko Osoko Bilkuran erabaki hau hartu zuten:

“Idazkari jaunak Osoko Bilkurari helarazi dio Euskal Autonomia Erkidegoan Emakumeen Aurkako Indarkeriaren arloko eskualdekatze-proposamena gertatzeko prozesua hasteko egokitasuna, ondoren aztertu eta eztabaidatzeko, honako premisa hauetatik abiatuta:

1.- Arlo honetako Planta Judiziala, gaur egun Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Ataletako lanpostu berriak hornitzen dituen 422/2025 Errege Dekretuak zehazten duena; horrek ez du eragozten, 2025eko otsailaren 28ko eta apirilaren 4ko Osoko Bilkuretan adostutakoa betez, Auzialdiko Auzitegietak Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Ataletako Planta Judiziala egituratzeko beharra azpimarratzea sexu-indarkeriaren arloko eskumena bere gain hartzen dutenean: bi lanposturekin Gasteizen, bi lanposturekin Donostian eta hiru lanposturekin Bilbon, bai

eta Barakaldoko Instrukzioko 4. Epaitegiaren eraldaketa lehengoratzeara.

2.- Autonomia Erkidegoan biktimentzat eskuragarri dauden auzitegi barruko eta kanpoko laguntza-baliabideak, genero-indarkeriaren biktimei arreta egokia emateko.

3.- Gaur egungo Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Epaitegien lan-karga, bai eta Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalen lan-karga handitzeko aurreikuspenak ere, sexu-erasoko delituen gaineko eskumena bere gain hartu ondoren, Gobernu Sala honetako Osoko Bilkuraren 2025eko otsailaren 28ko 1.1 akordioan eta Gobernu Sala honetako Osoko Bilkuraren 2025eko apirilaren 4ko 1.5 akordioan jasotakoaren arabera.

4.- Gaur egungo Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Epaitegien guardia-erregimena, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia berrikusten ari dena.

“Aurreko elementu horiek premisatzat hartuta, eta Arabako Probintzia Auzitegiko Lehendakari jaunak aurkeztutako eskualdekatze-proposamenen argitara, Aner Uriarte Codon jaunak bere garaian Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Epaitegiarako Plan Integralaren Proiektuari buruz landutako eta Gobernu Salaren Osoko Bilkurak onartutako txostena ikusita, bai eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 422/2025 Errege Dekretuari

buruz egindako txostenean jasotako gogoetak kontuan hartuta ere, Lehendakari jaunak proposamen bat aurkeztuko du Autonomia Erkidego honetan Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak eskualdekatzea bidezkoa den ala ez zehazteko, bai eta, bidezkotzat jotzen bada, hori gauzatuko litzatekeen barruti judizial zehatzak zein diren adierazteko ere, Gobernu Sala honetako Osoko Bilkurak eztabaida dezan, ziurrenik urrirako ezarriko den bilkuran”.

2.- Gobernu Salaren 2025eko azaroaren 21eko Osoko Bilkuran honako hau erabaki zen, Lehendakariak genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren arloko eskualdekatze judizialari buruz landutako ekimena aztertu ondoren:

“Osoko Bilkurak aurkeztutako proposamenaren lehen azterketa egin du. Bere ustez, abiapuntu ona izanik, Bizkaian probintziak eskualdekatzeko proposamen batekin osa daiteke, Barakaldo eta Bilboko Emakumearen aurkako Indarkeriaren Atalak Balmaseda, Durango, Gernika-Lumo eta Getxoko beste lau barruti judizialak bilduko dituen atal batean sartzea balioetsiko duena eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia berrikusten ari den Jarduera Judizialen Alderdi Osagarrien Erregelamenduan egungo Emakumearen aurkako Indarkeriaren Epaitegien zaintza-erregimenean egin daitezkeen aldaketak kontuan hartuko dituen. Era berean, erabaki da Maria Josefa Barbarin Urquiaga andreak beste autonomia-erkidego batzuetan indarrean dauden protokoloak eta

neurriak aurkez ditzala, mugikortasunaren eta biktimen laguntzaren arloan, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren arloko eskualdekatze-proposamenean eztabaidatu eta integratze aldera. Lehendakari jaunak bi aurreikuspen horiek gehituko dizkio proposamenari, eta azterketari berrekingo zaio Gobernu Salaren hurrengo Osoko Bilkuran”.

3.- Gobernu Salaren 2025eko abenduaren 19ko Osoko Bilkuran, ekimena aztertu ondoren, beharrezkotzat jo zen alderdi hauetan osatzea:

- Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Ataleko guardia-zerbitzuko lanpostu judizialak (gaur egungo araudiarekin guardia-zerbitzu espezifiko bat ezar litekeen bakarra) babes-aginduei, kautela-neurri espezifikoetara eta premiazko eginbideei eskain diezaiekeen erantzun-gaitasuna, gai horietako lan-karga espezifikoa aztertu ondoren.
- Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalean sortuko den behin-behineko egoera, aipatutako barruti judizialeko Instrukzioko 4. Epaitegitik datorren Barakaldoko Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Ataleko 2. lanpostuko aurreko lan-karga desagertzen ez den bitartean.
- Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Zigor Atalak gaur egun Barakaldoko Zigor Epaitegietan (barruti judizial horretan eta

Balmasedakoan izapidetutakoak) epaitzen diren emakumeen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria gaien epaiketan izango dituen ondorioak, kontuan hartuta Bilboko Zigor Epaitegiko 6. zenbakiak gaur egun duen gainkarga, emakumeen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria gaietan eskumen eskusibo eta baztertzaila baitu. Puntu honetan, bidezkoa da Bilboko beste Zigor Epaitegi bati ere genero-indarkeria eta sexu-indarkeria delituen epaiketan eskumen eskusibo baina ez-baztertzaila emateko bideragarritasuna aztertzea.

- Valentziako Autonomia Erkidegoko egoitza judizialetara genero-indarkeriaren biktimak lekualdatzeko protokoloaren azterketa, eskualdekatze-proposamenean txertatzeko aukera ikusteko.

4.- Gobernu Salaren 2026ko urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran erabaki zen lehendakari jaunak aurkeztutako ekimena behin-behinean onartzea eta horren berri ematea Autonomia Erkidegoko Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiari, Abokatutzaren Euskal Kontseiluari eta Prokuradoreen Euskal Kontseiluari, egindako proposamenari egoki irizten dizkieten ekarpenak egin diezazkieten. Aipatutako erakundeek dokumentu honi erantsita dauden txostenak landu zituzten.

II.- Eskualdekatzea: planteamendu orokorra

2025eko abenduaren 31tik aurrera, Euskadin genero-indarkeriaren instrukzioak (baita sexu-indarkeriarenak ere 2025eko urriaren 3tik geroztik) egitura judizial bikoitzari erantzuten dio: i) organikoki espezializatuta dauden eta barruti judizial hauetako Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Ataletako lanpostu judizialetan bideratzea: Barakaldo (bi lanpostu), Bilbo (bi lanpostu), Donostia (lanpostu bat) eta Gasteiz (lanpostu bat); ii) funtzionalki espezializatuta dauden eta Amurrio, Balmaseda, Bergara, Durango, Eibar, Gernika, Getxo, Irun eta Tolosako Auzialdiko Auzitegieta Atal Bakarretan kokatuta dauden lanpostu judizialetan bideratzea.

Eskualdekatzearen helburua da genero- eta sexu-indarkeriaren gaien ezagutza Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Ataletara biltzea, inguruko barruti judizialetako Auzialdiko Auzitegien egungo Atal Bakarren eskumen-esparrutik kenduta. Arau-oinarria Botere Judizialaren Lege Organikoaren (BJLO) 89.3 artikuluan dago; horren arabera, Gobernuak errege-dekretu bidez ezarri ahal izango ditu, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak proposatuta eta, hala badagokio, Justizia arloko eskumenak dituen autonomia-erkidegoaren txostenarekin, jurisdikzioa probintzia bereko bi barruti judizialetara edo gehiagotara zabalduko duten Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak.

Genero- eta sexu-indarkeriaren arloko eskualdekatzearen edo barruti judizialen biltzearen atzean, espezializazioaren eta hurbiltasunaren arteko eztabaida dago: espezializazioak genero-indarkeriaren tratamendu jurisdikzionala prestakuntza espezifikoa duten organo espezializatuek egitearen alde egiten du; hurbiltasunak, berriz, jurisdikzio-zerbitzua ustezko biktimarengandik hurbil dauden egitura judizialetan ematea jorratzen du. Printzipio horietako bakoitzak balio jakin batzuk helarazten ditu. Horrela, espezializazioak jakintza kualifikatuagoak eta espezifikagoak ahalbidetzen ditu; hurbiltasunak, berriz, bilatutako babesera azkarrago iristea dakar.

Gaur egun, mugikortasun-politika publikoen hobekuntza nabarmenari esker (oso aldenduta ez dauden biztanleguneen arteko lekualdatze nahiko bizkorrak ahalbidetzen baitituzte) eta biktimei laguntzeko, arreta emateko eta babesa zein laguntza emateko erakunde- eta komunitate-baliabideak biztanle gehien dituzten barruti judizialetan (nagusiki hiriburuetan) biltzeari esker, aukera dago politika judizial bat egituratzeko, non jurisdikzio-espezialitatea eta erakundeen laguntza, arreta, babesa nahiz laguntza bateratu daitezkeen, lekualdatze astunik eragin gabe. Horretarako, lau adierazle aztertu behar dira: i) organo judizialek beren gain hartzeko moduko lan-karga; ii) lurralde-

hurbiltasuna eta -irisgarritasuna; iii) arreta-kalitatea, dauden baliabideen erabilera eraginkorraren bidez.

III.- Euskadiko lan-karga judiziala genero- eta sexu-indarkeriaren arloan

III.1.- Gobernu Salaren 2025eko otsailaren 28ko Osoko Bilkuraren akordioan uste izan zen Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalen 2024ko lan-karga honako hau izan zela (sexu-indarkeria barne hartuta):

Barakaldo (lanpostu bat): 1557.

Bilbo (bi lanpostu): 2668

Donostia (plaza bat): 1415.

Gasteiz (plaza bat): 1590.

III.2.- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Justizia Ministerioaren artean sinatutako 2018ko Akordioan Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Epaitegiatarako ezarritako lan-karga urtean 1.600 gaitan finkatu zen (JUS/1415/2018 Ordena, abenduaren 28koa, 2018ko abenduaren 29ko BOE).

III.3.- Gobernu Salaren 2025eko apirilaren 4ko Osoko Bilkuraren akordioan uste izan zen genero-indarkeriaren arloan (sexu-indarkeria

barne hartuta) eskumen eskusibo eta ez-baztertzaila duen lanpostu judizial bat duten Auzialdiko Auzitegieta Atal Bakarren lan-karga honako hau dela:

Amurrio: **196:** 19 (zibila), 154 (instrukzioa), 23 (sexu-erasoak)
 Azpeitia: **185:** 32 (zibila), 126 (instrukzioa), 27 (sexu-erasoak)
 Balmaseda: **144:** 4 (zibila), 135 (instrukzioa), 5 (sexu-erasoak)
 Bergara: **299:** 34 (zibila), 232 (instrukzioa), 33 (sexu-erasoak)
 Durango: **359:** 58 (zibila), 266 (instrukzioa), 35 (sexu-erasoak)
 Eibar: **215:** 11 (zibila), 191 (instrukzioa), 23 (sexu-erasoak)
 Gernika-Lumo: **331:** 20 (zibila), 247 (instrukzioa), 64 (sexu-erasoak)
 Getxo: **457:** 26 (zibila), 384 (instrukzioa), 47 (sexu-erasoak)
 Irun: **492:** 75 (zibila), 362 (instrukzioa), 55 (sexu-erasoak)
 Tolosa: **416:** 46 (zibila), 310 (instrukzioa), 60 (sexu-erasoak).

III.4.- 2025eko lehen hiru hiruhilekoetako lan-kargaren azterketa honako hau da (beraz, azkena falta da, sexu-indarkeriako delituak zenbatzen hasiko direna):

Amurrio: **120:** 11 (zibila), 109 (instrukzioa)
 Azpeitia: **229:** 65 (zibila); 164 (instrukzioa)
 Balmaseda: **53:** 1 (zibila), 52 (instrukzioa)
 Bergara: **194:** 18 (zibila), 176 (instrukzioa)

Durango: **333:** 15 (zibila); 318 (instrukzioa).

Eibar: **166:** 29 (zibila), 137 (instrukzioa)

Gernika-Lumo: **253:** 12 (zibila), 241 (instrukzioa).

Getxo: **293:** 10 (zibila), 283 (instrukzioa).

Irun: **368:** 84 (zibila), 284 (instrukzioa)

Tolosa: **216:** 21 (zibila), 195 (instrukzioa).

Barakaldo: **1242:** 130 (zibila); 1112 (instrukzioa).

Bilbo: **1953** (bi lanpostu, 976,5 bakoitza): 230 (zibila); 1723 (instrukzioa)

Donostia: **1247:** 133 (zibila), 1114 (instrukzioa);

Gasteiz: **1359:** 238 (zibila), 1121 (instrukzioa).

Ekainaren 3ko 433/2025 Errege Dekretuak (2025eko ekainaren 4ko BOE) Barakaldoko Auzialdiko Auzitegi Instrukzio Ataleko lanpostu judiziala Barakaldoko Auzialdiko Auzitegi Instrukzio Ataleko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Ataleko 2. lanpostu judizial bihurtzea erabaki zuen. Azken xedapenetako hirugarrenaren 5. puntuan xedatutakoaren arabera, eraldaketa horren ondorioak Auzialdiko Auzitegi Instrukzio Ataleko 2. lanpostu judiziala eraginkortasunez eratzen den egunean gertatuko dira.

IV.- Emakumeen Aurkako Indarkeriaren egungo Epaitegien guardia-zerbitzuen erregimena

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren hiru epaitegira arte dituzten barruti judizialak (Autonomia Erkidegoko guztiak) guardia-zerbitzuen arloko erregimen orokorraren mende egongo dira. Hau da, egun eta ordu ukiezinetan, Guardia Zerbitzuan dagoen Epaitegiak bere gain hartuko ditu, ordezkapen bidez, arruntzki Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Epaitegiari dagozkion eskumenak (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 2005eko irailaren 15eko Erabakiaren bidez onartutako Jarduketa Judizialen Alderdi Osagarriei buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 42.4 artikulua). Aitzitik, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren lau epaitegi edo gehiago dituzten barruti judizialetan, iraunkortasuneko guardia-zerbitzu bat ezarriko da, eta bertan txandakatuko dira, elkarren segidan, bertan dauden mota horretako organo guztiak. Guardia-zerbitzu horiek hiru egun jarraitutan emango dira, bertan egonez, 09:00etatik 21:00etara. Gainerako denbora-aldietan aurkezen diren eta atzeratu ezin diren jardunetan, une horretan guardia-zerbitzua ematen ari den Instrukzio Epaitegiak edo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak esku hartuko du, eta egindako eginbideak organo eskumendunari bidaliko dizkio (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 2005eko irailaren 15eko Erabakiaren bidez onartutako

Jarduketa Judizialen Alderdi Osagarriei buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 62 bis artikulua).

V.- Euskadiko justizia-sistema instituzionalean dauden baliabide publikoak

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Epaitegietan jarduten duen Fiskaltzak Lurralde Historiko edo probintzia bakoitzeko hiriburuan du egoitza. Barakaldon bakarrik dago destakamentu bat Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeari atxikitako Balorazio Forense Integraleko Unitateak: Bilbo, Donostia eta Gasteiz. Biktimei Arreta Emateko Zerbitzua. Bilbo, Donostia eta Gasteiz.

VI.- Euskadiko beste sistema publiko batzuetan dauden baliabide publikoak

VI. VI.1.- Osasun-baliabideak: erreferentziako ospitaleak

Araba: erreferentziako ospitalea Txagorritxu da (Gasteizko barruti judiziala).

Bizkaia: erreferentziako ospitaleak Basurtu (Bilboko barruti judiziala), Gurutzeta (Barakaldoko barruti judiziala), Galdakao (Bilboko barruti judiziala) eta Urduliz (Getxoko barruti judiziala) dira.

Gipuzkoa: erreferentziako ospitaleak Debagoiena (Bergarako barruti judiziala), Bidasoa (Irungo barruti judiziala), Donostia (Donostiako barruti judiziala), Mendaro (Eibarko barruti judiziala) eta Zumarraga (Tolosako barruti judiziala) dira.

VI. VI.2.- Gizarte-arretarako baliabideak: Krisi-zentroak

Araba: Gasteiz

Bizkaia: Bilbo

Gipuzkoa: Arrasate, Donostia eta Zaldibia.

VI. 3.- Polizia-baliabideak: Ertzaintzaren komisariak

Ertzaintzak honako polizia-demarkazio hauek ditu: Araba (Gasteiz, Guardia, Laudio), Bizkaia (Bilbo, Muskiz, Balmaseda, Sestao, Getxo, Erandio, Basauri eta Galdakao, Durango, Gernika, Ondarroa); Gipuzkoa (Donostia, Irun, Errearteria, Hernani, Tolosa eta Beasain, Zarautz eta Azkoitia, Bergara eta Zumarraga, Eibar)

VII.- Eskualdekatzearen azterketa: ondoriozko barruti judizialen elkartzearen karga jurisdikzionala

VII.1.- Araban, genero-indarkeriaren arloko eskualdekatzeak, Gasteizko Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalaren jurisdikzioa Lurralde Historiko edo probintzia osora zabalduz:

- biktimei laguntza, arreta, babesa eta laguntza integrala bermatzen die, mota horretako zerbitzu publiko guztiak Gasteizen baitaude, eta
- erraza da bertara iristea, bi udalerrien arteko distantzia 41 kilometrokoa baita eta errepide bidezko komunikazio ona baitago euren artean.

Nolanahi ere, ekarriko lukeen lan-karga jurisdikzionala (1.786 gai 2024an; 1.479 gai 2025eko lehen hiru hiruhilekoetan) argi eta garbi gaintzen du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Justizia Ministerioak arrazoizkotzat jotako lan-karga (1.600 gai urtean). **Horrenbestez, ezin du bere gain hartu lanpostu bakar batez osatutako Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak. Ondorioz, beharrezkoa litzateke aipatutako Atalean bigarren lanpostu judizial bat eratzea. Lanpostu hori lurralde-atxikipeneko epaile baten lanpostua eraldatzetik abiatuta eratu ahal izango litzateke.**

VII.2.- Bizkaian, eskualdekatzeak ezinbestekoa du Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak dituzten Auzialdiko Auzitegien jurisdikzioa atal horiek ez dituzten barruti judizialetera zabaltzea. Barakaldoko eta Bilboko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalen arteko eskualdekatzeak ez luke espezializaziorik ekarriko, biek baitute espezializazio organiko hori; izan ere, espezializazio organikoaren balioa bi Atal horietakoren baten jurisdikzioa horrelakorik ez duten barruti judizialetera zabaltzean datza; *bestalde, ez luke hobekuntza-tasa nabarmenik ekarriko laguntzan, arretan, babesean eta laguntzan, bi udalerrien arteko hurbiltasun handia dela eta*. Egoera horretan, aukera hauek daude **(2024ko datuak kontuan hartuta):**

Barruti judizial bat Barakaldorekin eskualdekatuta:

- Barakaldo-Getxo: **2014** bi lanpostu judizialeterako (1007 bakoitza)
- Barakaldo-Durango: **1856** bi lanpostu judizialeterako (928 bakoitza).
- Barakaldo-Gernika-Lumo: **1888** bi lanpostu judizialeterako (944 bakoitza)
- Barakaldo-Balmaseda: **1701** bi lanpostu judizialeterako (850,5 bakoitza).

A) Bi barruti judizial Barakaldorekin eskualdekatuta

- Barakaldo-Getxo-Durango: **2373** bi lanpostu judizialeterako (1186 bakoitza)
- Barakaldo-Getxo-Gernika: **2345** bi lanpostu judizialeterako (1175,5 bakoitza).
- Barakaldo-Getxo-Balmaseda: **2158** bi lanpostu judizialeterako (1079 bakoitza).
- Barakaldo-Gernika-Durango: **2247** bi lanpostu judizialeterako (1123,5 bakoitza).
- Barakaldo-Durango-Balmaseda: **2060** bi lanpostu judizialeterako (1030 bakoitza).

B) Hiru barruti judizial Barakaldorekin eskualdekatuta:

- Barakaldo, Getxo, Durango eta Gernika: **2704** bi lanpostu judizialtarako (1352 bakoitza).
- Barakaldo-Getxo-Durango-Balmaseda: **2848** bi lanpostu judizialtarako (1424 bakoitza).
- Barakaldo-Durango-Gernika-Balmaseda: **2391** bi lanpostu judizialtarako (1195,5 bakoitza).

C) Barruti judizial bat Bilborekin eskualdekatuta:

- Bilbo-Getxo: **3125** bi lanpostu judizialtarako (1562,5 bakoitza).
- Bilbo-Durango: **3036** bi lanpostu judizialtarako (1518 bakoitza).
- Bilbo-Gernika: **2999** bi lanpostu judizialtarako (1499,5 bakoitza).
- Bilbo-Balmaseda: **2812** bi lanpostu judizialtarako (1406 bakoitza)

D) Bi barruti judizial Bilborekin eskualdekatuta

- Bilbo-Getxo-Durango: **3484** bi lanpostu judizialtarako (**1742 bakoitza**)

- Bilbo-Getxo-Gernika: **3456** bi lanpostu judizialtarako (**1728 bakoitza**)
- Bilbo-Getxo-Balmaseda: **3269** bi lanpostu judizialtarako (**1634,5 bakoitza**).
- Bilbo-Durango-Gernika: **3358** bi lanpostu judizialtarako (**1679 bakoitza**).
- Bilbo-Durango-Balmaseda: **3171** bi lanpostu judizialtarako (1585,5 bakoitza).
- Bilbo-Gernika-Balmaseda: **3143** bi lanpostu judizialtarako (1571,5 bakoitza).

E) Bilborekin hiru barruti judizial eskualdekatuta

- Bilbo-Getxo-Durango-Gernika: **3815** bi lanpostu judizialtarako (**1907,5 bakoitza**)
- Bilbo-Getxo-Durango-Balmaseda: **3269** bi lanpostu judizialtarako (**1634 bakoitza**)
- Bilbo-Durango-Gernika-Balmaseda: **3.502** bi lanpostu judizialtarako (**1751 bakoitza**)

F) Barruti judizial bat Barakaldo eta Bilborekin eskualdekatuta

- Barakaldo-Bilbo-Getxo: **4682** lau lanpostu judizialtarako (1170 bakoitza)
- Barakaldo-Bilbo-Durango: **4584** lau lanpostu judizialtarako (1146 bakoitza)
- Barakaldo-Bilbo-Gernika: **4556** lau lanpostu judizialtarako (1139 bakoitza)
- Barakaldo-Bilbo-Balmaseda: **4369** lau lanpostu judizialtarako (1092,25 bakoitza)

G) Bi barruti judizial Barakaldo eta Bilborekin eskualdekatuta

- Barakaldo-Bilbo-Getxo-Durango: **5041** lau lanpostu judizialtarako (1260,25 bakoitza)
- Barakaldo-Bilbo-Getxo-Gernika: **5013** lau lanpostu judizialtarako (1253,25 bakoitza).
- Barakaldo-Bilbo-Getxo-Balmaseda: **4826** lau lanpostu judizialtarako (1206,5 bakoitza).
- Barakaldo-Bilbo-Durango-Gernika: **4915** lau lanpostu judizialtarako (1228,75 bakoitza)
- Barakaldo-Bilbo-Durango-Balmaseda: **4728** lau lanpostu judizialtarako (1182 bakoitza).
- Barakaldo-Bilbo-Gernika-Balmaseda: **4700** lau lanpostu judizialtarako (1175 bakoitza).

H) Hiru barruti judizial Barakaldo eta Bilborekin eskualdekatuta

- Barakaldo-Bilbo-Getxo-Durango-Gernika: **5372** lau lanpostu judizialtarako (1343 bakoitza).
- Barakaldo-Bilbo-Getxo-Durango-Balmaseda: **5185** lau lanpostu judizialtarako (1269,25 bakoitza).

- Barakaldo-Bilbo-Durango-Gernika-Balmaseda: **5059** lau lanpostu judizialerako (1264,75 bakoitza).

I) Barakaldo, Bilbo eta gainerako barruti judizialak eskualdekatuta

- **5516** lau lanpostu judizialerako (1379 bakoitza)

Planteatutako aukeren artean, espezializazioa eta lan-karga hobekien integratzea (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Justizia Ministerioaren 2018ko akordioan lan-kargatzat finkatutako urteko 1.600 gaiak parametrotzat hartuta) eta hainbat barruti judizialen arteko mugikortasuna ahalbidetzen duena da Bizkaiko lurralde historiko osoa eskualdekatzea bermatzen duena; horretarako, Bilboko Auzialdiko Auzitegian lau lanpostu judizial dituen Emakumeen Aurrakako Indarkeriaren Atala sortuko litzateke, eta bertan integratuko lirateke datozen hilabeteetan Barakaldoko Emakumeen Aurrakako Indarkeriaren Atala osatuko duten bi lanpostuak. Aukera horrek bere gain hartzeko moduko lan-karga erlatiboa ahalbidetzen du (1.379 gai lanpostu bakoitzeko), 2018an finkatutako parametroak kontuan hartuta (1.600 gai lanpostu bakoitzeko), distantzia hurbilak eta komunikazio onak dituzten barruti judizialen artean (Balmaseda, 32 kilometro; Barakaldo, 10 kilometro; Durango eta Gernika, 35 kilometro; Getxo, 15 kilometro). Halaber, aukera ematen du genero-indarkeriaren arloko guardiako

arabide espezifiko bat abian jartzeko, gaur egun Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Alderdi Osagarrien Erregelamenduan zehaztutako baldintzetan.

Nolanahi ere, aukera horrek hiru gai zehatzago definitzea eskatuko du: i) guardia-zerbitzuan dagoen lanpostu judizialak babes-aginduei, kautelazko neurri espezifikoak eta premiazko eginbideei eskain diezaiekeen erantzun-gaitasuna, gai horietako lan-karga espezifikoaren azterketa batetik abiatuta; ii) Barakaldoko Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurrakako Indarkeriaren Atalaren 2. lanpostuak aipatutako barruti judizialeko egungo 4. Instrukzio Epaitegitik datorkion aurreko lan-karga amaitu bitartean sortuko den aldi baterako egoera; eta iii) gaur egun Barakaldoko Zigor Epaitegietan epaitzen diren emakumeen aurrakako indarkeria eta sexu-indarkeria arloko gaiak (barruti judizial honetan eta Balmasedakoan instruitutakoak) Bilboko Zigor Epaitegiek epaitzeak dakartzan ondorioak, gai honetan eskumen espezifikoa duen Bilboko 6. Zigor Epaitegiaren egungo gainkarga kontuan hartuta. *Gai horiek proposamen honen VIII. puntuan aztertuko dira.*

VII.3.- Gipuzkoan, honako hauek izan litezke aukerak egungo planta judizialerako, kontuan hartuta Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurrakako Indarkeriaren Atalean lanpostu judizial bat dagoela **(2024ko datuak kontuan hartuta):**

- Donostia-Azpeitia: 1600
- Donostia-Bergara: 1714.
- Donostia-Eibar: 1630.
- Donostia-Irun: 1907
- Donostia-Tolosa: 1831.

Gai-kantitatearen ikuspegitik, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Justizia Ministerioaren 2018ko akordioa haztapen-irizpidetzat hartuta (lan-karga “arrazoizkoa” urtean 1.600 gaitan finkatzen duena), egungo planta judizialarekin ez dago aukera bideragarriarik, alternatiba guztiek aipatutako lan-karga argi eta garbi gainditzea dakartelako.

Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalean planta judiziala bigarren lanpostu batera zabalduz gero, jurisdikzio-kargaren ikuspegitik, honako aukera hauek izango lirateke bideragarriak:

A) Barruti judizial bat Donostiarekin eskualdekatuta

- Donostia-Irun: **1907** bi lanpostu judizialerako (953,5 bakoitza).
- Donostia-Azpeitia, bi lanpostu judizialerako: **1600** bi lanpostu judizialerako (800 bakoitza).

- Donostia-Bergara: **1714** bi lanpostu judizialerako (857 bakoitza).
- Donostia-Eibar: **1630** bi lanpostu judizialerako (815 bakoitza).
- Donostia-Tolosa; **1631** plaza bi lanpostu judizialerako (915,5 plaza bakoitzeko).

B) Bi barruti judizial Donostiarekin eskualdekatuta:

- Donostia-Irun-Azpeitia: **2092** bi lanpostu judizialerako (1046 bakoitza).
- Donostia-Irun-Tolosa: **2323** bi lanpostu judizialerako (1161,5 bakoitza).
- Donostia-Irun-Eibar: **2122** bi lanpostu judizialerako (1061 bakoitza).
- Donostia-Irun-Bergara: **2206** bi lanpostu judizialerako (1103 bakoitza).
- Donostia, Azpeitia eta Tolosa: **1016** bi lanpostu judizialerako (1008 bakoitza).
- Donostia, Eibar eta Tolosa: **2046** bi lanpostu judizialerako (1023 bakoitza).

- Donostia, Bergara eta Tolosa: **2130** bi lanpostu judizialtarako (1065 bakoitza).

C) Hiru barruti judizial Donostiarekin eskualdekatuta:

- Donostia, Irun, Azpeitia eta Tolosa: **2508** bi lanpostu judizialtarako (1254 bakoitza).
- Donostia, Irun, Eibar eta Azpeitia; 2307 plaza bi lanpostu judizialtarako (1153 bakoitza).
- Donostia, Irun, Azpeitia eta Bergara: 2391 bi lanposturako (1195,5 bakoitza).
- Donostia-Irun, Tolosa eta Bergara; 2622 bi lanpostu judizialtarako (1311 bakoitza).
- Donostia, Azpeitia, Tolosa eta Eibar: 2231 bi lanposturako (1115,5 bakoitza).
- Donostia, Tolosa, Eibar eta Bergara: 2345 bi lanposturako (1172,5 bakoitza).
- Donostia, Irun, Tolosa eta Eibar: 2.156 bi lanposturako (**1.082 bakoitza**).

D) Lau barruti judizial Donostiarekin eskualdekatuta:

- Donostia, Irun, Azpeitia, Tolosa eta Eibar: **2723** bi lanposturako (1361,5 bakoitza).
- Donostia, Azpeitia, Tolosa, Eibar eta Bergara: **2530** bi lanposturako (1265 bakoitza).
- Donostia, Irun, Tolosa, Eibar eta Bergara: **2837** bi lanposturako (1418,5 bakoitza).

E) Donostia gainerako barruti judizialekin eskualdekatuta

- Donostia, Irun, Azpeitia, Tolosa, Eibar eta Bergara: 3.022 gai bi lanposturako (1511 bakoitza).

Aukerarik onena, espezializazioaren, lan-kargaren eta mugikortasunaren ikuspegitik, Donostia, Irun eta Tolosa integratzea da, ***baldin eta Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak bi lanpostu judizial badauzka, eta, hala badagokio, lurralde-atxikipeneko epaile baten lanpostua eraldatzera jotzen bada***. Kasu horretan, lanpostu bakoitzeko 1.161,5 gaiko lan-karga ahalbidetzen da, gertu dauden (Donostia eta Irun, 20 kilometro bi udalerrien artean) eta hurbil eta ondo komunikaturik dauden (Donostia eta Tolosa, 28 kilometro) barruti judizialen artean. Laugarren barruti judizial bat (Azpeitia, Bergara edo Eibar) gehitzeko aukera bideragarria da lan-kargari dagokionez, bere aldaera guztietan, lanpostu judizial bakoitzeko 1.265 eta 1.418,5 gai artean ibiliko bailitzateke. Nolanahi ere, oztopo latza ekarriko luke distantziari dagokionez (60 kilometro Bergaratik; 54 Eibartik eta 42 Azpeititik) eta mugikortasun-araudiei dagokienez, orografia eta dauden garraiobide publikoak kontuan hartuta (autobusak eta trenbidea, ordu betetik gorako ibilbideekin). Ez da hain bideragarria da Gipuzkoako Lurralde Historiko osoa eskualdekatzea barruti judizial guztiak Donostian bilduz; izan ere, lan-karga 1.600 gai ingurukoa izango litzateke, hau da, 2018ko akordioan finkatutako lan-kargaren muga-

mugan. Gainera, lehen aipatutako distantzia- eta mugikortasun-arazoak izango lituzke.

VIII.- Eskualdekatzearen azterketa: ondorio osagarriak

VIII.1.- Bizkaiko Lurralde Historikoan bildutako Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalen guardia-zerbitzua: jurisdikzio-karga

Kualitate-erreferentziatzat premiazko eginbideen izapidetze-jarduera eta babes-aginduak zein bestelako kautelazko neurriak hartzeko jarduera hartuta (horixe baita lanik handiena duen jurisdikzio-jarduera Guardia Zerbitzuan), eta, kantitate-elementutzat, Puntu Neutro Judizialetik lortutako 2024ko datuak (oraindik ez baitago 2025eko datu sendorik), honako jakintza hau eskura daiteke:

- Barakaldo: 444 premiazko eginbide eta 128 babes-agindu zein kautelazko neurri.
- Bilbo (bi lanpostu judizialen batura): 550 premiazko eginbide eta 261 babes-agindu zein kautelazko neurri.
- Donostia: 269 premiazko eginbide eta 106 babes-agindu zein kautelazko neurri.

- Gasteiz: 326 premiazko eginbide eta 205 babes-agindu zein kautelazko neurri.

Horrenbestez, Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalaren guardia-erregimen espezifikoak (lanpostu judizial bikoitza izango lukeena Lurralde Historiko osoa eskualdekatuz gero) bere gain hartu beharko luke Barakaldoko eta Bilboko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalen lanpostuetatik datorren lan-karga (lehen aipatutakoa); genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren arloko eskumena duten Auzialdiko Auzitegietako Atal Bakarretako lanpostu judizialetatik datorrena (Balmaseda, 20 premiazko eginbide eta 17 babes-agindu; Durango, 58 premiazko eginbide eta 37 babes-agindu; Gernika, 62 premiazko eginbide eta 20 babes-agindu; Getxo, 74 premiazko eginbide eta 54 babes-agindu); eta genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren arloko eskumenik ez duten Bizkaiko Lurralde Historikoko Atal Bakarretako lanpostu judizialetatik eratorritakoaren zati bat (Balmaseda, 11 premiazko eginbide eta 11 babes-agindu; Barakaldo, 65 premiazko eginbide eta 43 babes-agindu; Bilbo, 404 premiazko eginbide eta 153 babes-agindu; Durango, 10 premiazko eginbide eta 10 babes-agindu; Gernika, 17 premiazko eginbide eta 8 babes-agindu; Getxo, 35 premiazko eginbide eta 17 babes-agindu). Zerbitzu horrek, urtero, gehienez 1.750 premiazko eginbide eta 759 babes-agindu izapidetu beharko lituzke. Hots, egunean bi babes-agindu

edo kautelazko neurri eta bost premiazko eginbide inguru. Ez daude zenbatuta sexu-indarkeriaren ondoriozko premiazko eginbideak eta babes-aginduak edo kautelazko neurriak.

VIII.2.- Bizkaiko Lurralde Historikoan bildutako Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak instruitutako delituak Barakaldoko eta Bilboko Auzialdiko Auzitegietako Zigor Atalek epaitzea

Puntu Neutro Judizialak eskainitako 2024ko datuak kontuan hartuta (2025ekoak ez baitaude zehaztuta), Barakaldoko Auzialdiko Auzitegiko Zigor Atalak genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren arloko 297 gai erregistratu zituen (168 1. lanpostuak eta 129 2. lanpostuak). Kopuru hori (gehi 2025eko urriaren 3tik aurrera abiarazitako prozedurengatiko sexu-delituetatik datorrena), eskualdekatzea gertatuz gero, Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Zigor Atalaren 6. lanpostu judizialak hartu beharko luke bere gain. Azken organo judizial horrek 586 gaiko lan-karga izan zuen 2024an, hau da, lan-kargaren % 116. **Horrenbestez, jurisdikzio-saturazioa saihesteko, beharrezkoa litzateke Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Zigor Atalaren beste lanpostu judizial bati gai honetako eskumen ez-esklusibo baina aldi berekoa esleitzea edo, hala badagokio, planta judiziala beste lanpostu batekin handitzea eta, beste gai batzuez gain, jurisdikzio-eskumen hori esleitzea.**

VIII.3.- Bizkaiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalaren laugarren lanpostuaren egoera espezifiko biltzearen ondoren

Puntu Neutro Judizialak eskainitako 2024ko datuak kontuan hartuta (2025ekoak oraindik ez baitaude zehaztuta), Barakaldoko Auzialdiko Auzitegiko Instrukzio Atalaren 4. lanpostu judizialak (aipatutako Auzitegiko Indarkeria Atalaren 2. lanpostu judizial bihurtuko denak) ebazteke dauden 453 gai ditu (1 sumario, 1 premiazko eginbide, 222 aldez aurreko eginbide, 103 prozedura laburtu, 126 epaiketa delitu arinengatik). Aipatutakoa Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalaren 4. lanpostu judizialaren hasierako lan-karga da, eskualdekatzea gertatuz gero. Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalaren 3. lanpostu judizialaren ebazteke dagoen karga (2024ko datuak kontuan hartuta) 469 gaikoa da (13 premiazko eginbide, 8 sumario, 335 aldez aurreko eginbide, 112 prozedura laburtu eta delitu arren arloko epaiketa 1). Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalaren 1. lanpostu judizialak ebazteke dauden 153 gai ditu (3 premiazko eginbide, 3 sumario, 100 aldez aurreko eginbide, 43 prozedura laburtu eta delitu arren arloko 3 epaiketa). Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalaren 2. lanpostu judizialarenak 247 dira (166 aldez aurreko eginbide, 77 prozedura laburtu eta delitu arren arloko 4 epaiketa). Datu horiekin, lanpostu judizial bakoitzaren abiapuntuak ez du

salbuespen partzialeko neurri espezifikorik beharko. **Nolanahi ere, ohar hori baztergarria izan daiteke baldin eta errealitate juridiko bihurtzen bada 2026ko programazioari dagozkion lanpostu judizialak sortzeko eta planta judiziala egokitzeko Errege Dekretuaren zirriborroa, zeinak ondoriorik gabe uzten baitu Barakaldoko Auzialdiko Auzitegiko Instrukzio Atalaren 4. lanpostu judizialaren eraldaketa, eta aipatutako Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalaren 2. lanpostu judizialaren sorkuntza mantentzen baitu.**

VIII.4.- Pertsonak lekualdatzea

Genero-indarkeriaren —sexu-indarkeria barne— biktima direla dioten pertsonen eskualdatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago Valentziako Autonomia Erkidegoan sinatutakoaren moduko protokolorik. Ertzaintzaren barne-araudian 45. Zerbitzu Agindua baino ez dago, genero-indarkeriaren biktimei eman beharreko tratamendua eta laguntza honako baldintza hauetan arautzen dituen:

"Biktimaren arriskuaren ebaluaziotik arrisku-maila ertaina, altua edo berezia ondorioztatzen denean eta Ertzaintzak eginbideak instruitzen dituenean, biktimari Epaitegira lekualdatzea eskainiko zaio bere lehenengo agerraldirako, arreta emateko asmoz. Haren erabakia "EVD/VG, FM0194 biktimei babes-neurriak eskaintzeko akta"n jasoko

da, haren sinadurarekin. Operazio Burutzak babes-neurri egokienak baloratuko ditu biktimak epaitegian ematen duen denboran eta bere helbidera edo premiazko egoitzara lekualdatu arte”.

Baliabide ekonomikoen faltari edo bereziki zaurgarriak diren eta prekariedade-egoerei dagokienez, tokiko eta/edo lurralde-eremuko gizarte-zerbitzuen (udalak eta aldundiak) eskumena litzateke”.

Aurreikuspen hori ez da nahikoa bereziki zaurgarriak diren biktimen babes eraginkorra bermatzeko. Hori dela eta, Fiskaltza Nagusiak eta Abokatutzaren Euskal Kontseiluak beren txostenetan adierazten duten bezala, beharrezkoa da bereziki zaurgarriak diren biktimak epaitegietara lekualdatzeko protokolo bat antolatzea, prozeduran adosten diren eginbideak burutzeko. Ondorio horietarako, jarraitu beharreko eredia Valentziako Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Genero-indarkeriaren biktimak epaitegietara lekualdatzeko protokoloak osatutakoa litzateke.

VIII.5.- Eskualdatutako Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak ordezkatzeko dituzten Instrukzio Atalak

Aztertu beharreko beste gai bat da zein Instrukzio Atali edo Atal Bakarri dagokion Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atala ordezkatzeko, eskumeneko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atala guardia-

zerbitzuan ez dagoen denbora-gaitik kanpo. Gai horren araubidea jardun judizialen osagarriari buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 42.4 artikuluan jasota dago. Arau horrek adierazten duenez, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atala guardia-zerbitzuan ez dagoen denbora-gaitik kanpo, guardia-zerbitzua egiten ari den Instrukzio Atala edo Atal Bakarri izango da Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atala ordezkatzeko eskumena duena. Barruti judizialak eskualdekatzen diren kasuetan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak horri buruz hartutako akordioetan (Batzorde Iraunkorraren 2025eko abenduaren 16ko akordioa, Badajozko Auzialdiko Auzitegiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalaren "eskualdekatzeari" buruzkoa) edo beste Gobernu Sal batzuen akordioetan (Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren abenduaren 23ko akordioa, Valladolid eta Leongo Auzialdiko Auzitegietako Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Ataletan gertatutako «eskualdekatzeari» buruzkoa) irizpide hau ezartzen da: ordezkatzeko jarduna gertakariak zigortu diren tokiko Instrukzio Atala dagokiola, Prozedura Kriminalaren Legearen 15 bis artikuluan aurreikusitako baldintzetan. 2024ko datuen arabera, eskualdekatzeak hartzen dituen Instrukzio Epaitegien lan-karga honako hau litzateke: Araban: Gasteiz, 156 premiazko eginbide eta 84 babes-agindu, eta Amurrio, 7 premiazko eginbide eta 2 babes-agindu; Gipuzkoan, Donostia, 191 premiazko eginbide eta 88 babes-agindu; Irun, 58 premiazko eginbide eta 23 babes-agindu, eta Tolosa, 20 premiazko eginbide eta 3 babes-agindu.

VIII.6.- Eraikin judizialak

Bilboko Justizia Jauregiak bi solairu ditu (laugarrena eta bosgarrena) Buenos Aires kaleko eraikinean, eta bertan dago kokaturik Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atala, gaur egun bi lanpostu judizialek osatzen dutena. Aipatutako solairuetan erreserba-espazio bat egoteak aukera ematen du beste bi lanpostu judizial gehitzeko, dagozkien zerbitzuekin batera. Horrek, halaber, espazio gehigarri bat ahalbidetuko du Barakaldoko Justizia Jauregian (gaur egun dagoen Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak osatzen duena).

Donostiako eta Gasteizko Justizia Jauregietan espazioak egokitu beharko dira, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalen bakoitzean bigarren lanpostu judizial bat integratu ahal izateko, dagozkien zerbitzuekin batera.

VII.- Fiskaltza, Abokatutza, Bulego Judiziala eta Auzitegi Balorazio Integraleko Unitatea

Erakunde eskudunei egokituko zaie baloratzea proposatutako eskualdekatzeak, barruti judizialen biltze eraginkor bihurtuz gero, berekin dakarren Fiskaltzan, Bulego Judizialean eta Auzitegi Balorazio

Integraleko Unitatean dagozkion dotazioak handitzea, bai eta biktimei zein ikertuei emandako laguntza juridikoan estaldura gehigarria izatea ere.

IX.- Ondorio gisa

- Bizkaiko Lurralde Historikoa eskualdekatzea posible da, barruti judizial guztiak Bilboko barruti judizialean bilduz; horrek lau lanpostu judizial izango lituzke, gaur egungo Barakaldoko (bi lanpostu) eta Bilboko (bi lanpostu) Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Ataletatik datozenak. Horrenbestez, lau lanpostu judizialeko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atala litzateke, egoitza Bilbon izango lukeena, bere jurisdikzioa Lurralde Historiko osora zabalduko lukeena eta guardia-erregimen espezifiko bat izango lukeena. Guardia-zerbitzu espezifiko horren ordutegitik kanpo, premiazko jardunak eta babes-aginduen zein bestelako kautelazko neurrien eskaeretatik eratorritakoak delitua egin den tokiko Auzialdiko Auzitegietako Instrukzio Atalek edo Atal Bakarrek hartuko lituzkete beren gain.
- Bizkaiko Lurralde Historikoa eskualdekatuz gero, beharrezkoa litzateke Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Zigor Atalaren planta

judiziala beste lanpostu judizial batekin handitzea (8. lanpostuarekin), genero-indarkeriako eta sexu-indarkeriako delituak epaitzeko jurisdikzio-eskumena (esklusiboa edo aldi berekoa) esleituta.

- Arabako Lurralde Historikoa eskualdekatzea bideragarria litzateke Amurrioko barruti judiziala Gasteizko barruti judizialari bilduz, baldin eta Gasteizko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak bi lanpostu judizial balitu. Bigarren lanpostu judiziala Lurralde Atxikipeneko Epaille bat eraldatuz sortu liteke. Horrenbestez, bi lanpostu judizialeko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atala litzateke, egoitza Gasteizen izango lukeena eta bere jurisdikzioa Lurralde Historiko osora zabalduko lukeena. Ez luke guardia-erregimen espezifikorik izango; beraz, entzunaldiko ordutegitik kanpo, delitua egin den tokiko Auzialdiko Auzitegiko Instrukzio Atalek edo Atal Bakarrek izapidetuko lituzkete premiazko jardunak eta babes-aginduak zein bestelako kautelazko neurriak. Bigarren lanpostu judiziala lurralde-atxikipeneko epaille bat eraldatuz sor daiteke.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zati bat eskualdekatzea bideragarria litzateke Irungo eta Tolosako barruti judizialak Donostiako barruti judizialari bilduz, baldin eta Donostiako

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak bi lanpostu judizial balitu. Bigarren lanpostu judiziala Lurralde Atxikipeneko Epaille bat eraldatuz sortu liteke. Horrenbestez, bi lanpostu judizialeko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atala litzateke, egoitza Donostian izango lukeena eta bere jurisdikzioa Donostiako, Irungo eta Tolosako barruti judizialetara zabalduko lukeena. Ez luke guardia-erregimen espezifikorik izango; beraz, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalaren entzunaldiko ordutegitik kanpo, delitua egin den tokiko Auzialdiko Auzitegiko Instrukzio Atalek edo Atal Bakarrek izapidetuko lituzkete premiazko eginbideak eta babes-neurriak zein bestelako kautelazko neurriak.

- Beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailarekin eta, hala badagokio, Justizia eta Giza Eskubideen Sailarekin lankidetzatza-protokolo bat antolatzea, bereziki zaurgarriak diren biktimak epaitegietara lekualdatzea ahalbidetuko duena, prozeduran adosten diren eginbideak burutzeko.
- Proposatutako eskualdekatze-kasu guztietan, beharrezkoa da justizia-jauregietan espazio egokiak egokitzea lanpostu judizialak Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalen integartzeko, genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimak babesteko estatuko eta autonomiako legerian jasotako irizpideekin bat etorritz.

- Erakunde eskudunei egokituko zaie baloratzea proposatutako eskualdekatzeak, barruti judizialen biltze eraginkor bihurtuz gero, berekin dakarren Fiskaltzan, Bulego Judizialean eta Auzitegi Balorazio Integraleko Unitatean dagozkion dotazioak handitzea, bai eta biktimei zein ikertuei emandako laguntza juridikoan estaldura gehigarria izatea ere.

10.— JUSTIZIAN HEZTEA PROGRAMA ETA EHU-REKIKO ELKARLANA

10.1.- JUSTIZIAN HEZTEA PROGRAMA

"Justizian Heztea" programa Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Komunikazio Bulegoak sustatutako ekimena da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak egindako elkarlan-akta baten bidez garatu da. Programa horren helburua da hurbilago ekartzea sistema judizialaren funtzionamendua Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleei. Euskal Autonomia Erkidegoan hasi zen, 2019-2020 ikasturtean, bi ikastetxek parte hartu zuten programa pilotu batekin. Eten egin zen COVID-19aren pandemia-garaian, baina 2022-2023 ikasturtean hasi zen berriz, 48 ikastetxetan, 40 epaileren laguntzarekin.

Guztira, 2024-2025 ikasturte honetan, 4.112 ikasle ibili dira "Justizian Heztea" programan, EAEko 87 ikastetxetakoak (18 Araban, 61 Bizkaian eta 27 Gipuzkoan), bai eta epailetzako 21 profesional ere. Programa horren helburua da Justizia eta haren funtzionamendua hurbilago ekartzea Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleei.

Programa hiru saiotan egituratuta dago ikastetxe bakoitzean, eta euskaraz zein gaztelaniaz egiten da.

Lehenengoan, epailea hizketan jardungo da ikasleekin; bigarrenean, ikasleak epaiketa batera joango dira; eta, azkenik, hirugarren saioan, ikasleek epaiketa baten simulazioa egingo dute, benetako kasuei buruzko gidoiak erabilita, epaile baten tutoretzapean.

"Justizian Heztea" programaren helburua da, esanda bezala, ikasleei erakustea sistema judizialak nola funtzionatzen duen, esplikatuz jurisdikzio-ordena bakoitza zein den (zibila, penala, administrazioarekiko auziena eta lan-arlokoa), zigor-arloko epaiketa nola garatzen den eta alderdi bakoitzak zer funtzio betetzen duen.

Gainera, bereziki lantzen ditu eskola-jazarpena, sare sozialen erabilera eta pribatutasuna errespetatu beharra, eta are gehiago irudi intimo edo sexualen elkartrukea, genero-indarkeria, drogen kontsumoa eta adingabearen erantzukizun penala.

	Hezkuntza-zentroak	Karrera judiziala eta Fiskaltza
Araba	18	21 Karrera judizialekoak
Bizkaia	61	
Gipuzkoa	27	
GUZTIRA	106	

10.2.- EHUREKIKO ELKARLANA

Auzitegi Nagusiko Presidentetzak eta Euskal Herriko Unibertsitateak sinatu zuten 2023ko martxoaren 15ean, elkarlana formalizatzeko irakaskuntzan, hausnarketan eta ikerketaren arloan.

Irakaskuntzaren eremuan, gero eta indar handiagoa ari da hartzen sistema judiziala Zuzenbideko eta Kriminologiako graduatan practicum egiteko funtsezko aukera gisa. Helburua da ikasleari irakasgai hori sistema judizialeko zenbait organo eta erakundeetan garatzen laguntzea, juristen eta kriminologoaren prestakuntza teorikoa osatuko duten ezagutza praktikoak eskuratzeko. Horretarako, prestakuntza-ibilbide batzuk landuko dira, ahalik eta egokienak, alde batetik, ikasleak prestatzeko eta, bestetik, epaileek tutore gisa konpromiso aktiboa hartzeko. 2025-2026 ikasturtean zazpi prestakuntza-ibilbide egin ziren (bi Bilbon, beste bat Balmaseda-Barakaldo-Bilbon, beste bat Getxo-Barakaldo-Bilbon, beste bat Vitoria-Gasteiz-Amurrión, beste bat Donostian eta beste bat Durango-Tolosa-Donostian). 22 ikaslek ikasi dute irakasgai hori, eta 56 epaile eta magistratu konprometitu dira irakaskuntzan.

PRESTAKUNTZA-IBILBIDEAK	IKASLEAK	KARRERA JUDIZIALA
Bilbo (zibila, merkataritzakoa, adm. auz.)	3	8
Bilbo (zibila, gizartekoa)	3	8
Getxo/Bilbo (zibila, zigorrekua)	3	8
Barakaldo (zibila, zigorrekua)	3	8
Irun/Donostia (zibila, zigorrekua)	4	8
Tolosa/Bergara/Durango/Gernika-Lumo	4	8
Gasteiz	2	8


11.— JUSTIZIA ETA EUSKARA

Atal honetako datuak 2023koak dira, Memoria hau onartu zen unean ez baitzeuden 2025eko datuak.

Justizia Administrazioiko funtzionarioek egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak, 2023

	1HE		2HE		3HE		4HE		HErik ez		GUZTIRA
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
Araba	25	6,4	79	20,3	82	21,0	2	0,5	202	51,8	188
Bizkaia	72	5,2	334	24,3	313	22,8	12	0,9	642	46,8	731
Gipuzkoa	47	6,4	192	26,1	232	31,5	31	4,2	234	31,8	502
EAE	144	5,8	605	24,2	627	25,1	45	1,8	1078	43,1	1421

Iturria: Justizia Administrazioiko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza)



Deklarazioak

	2019	2020	2021	2022	2023
Araba	5	3	2	1	1
Bizkaia	33	22	22	14	3
Gipuzkoa	69	60	44	39	35
EAE	107	85	68	54	39

Euskaraz egindako deklarazioak, interpretearen esku-hartzea behar izan dutenak.
Iturria: Justizia Administrazioiko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza)

Agerraldiak

	2019	2020	2021	2022	2023
Araba	0	0	0	1	0
Bizkaia	5	3	2	0	0
Gipuzkoa	14	8	5	2	4
EAE	19	11	7	3	4

Euskaraz egindako agerraldiak, interpretearen esku-hartzea behar izan dutenak.
Iturria: Justizia Administrazioiko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza)

EUSKARAZKO EPAIKETEN PROIEKTU PILOTUA

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Presidentetza

A.- PREMISAK

1.- Gobernu Salaren 2023ko urriaren 27ko osoko bilkuran erabaki hau hartu zuten:

EPAIKETAK EUSKARAZ EGITEKO PROIEKTU PILOTU BATEN BIDERAGARRITASUNA AZTERTZEA.

Osoko Bilkurak erabaki du Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea eta Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jauna, Euskara Bokazioko kideak, enkargatzea azter dezatela euskara hutsezko epaiketak egiteko proiektu pilotu baten bideragarritasuna, bi oinarrizko irizpide kontuan hartuta: legeak aldeztu aurretik zehaztutako ohiko epailearen berme konstituzionala errespetatzea (hau da, aldeztu aurretik esleitutako gaiak izatea) eta parte-hartzaileen borondatezotasun-irizpidea.

2.- 2024ko urriaren 25eko osoko bilkuran erabaki hau hartu zuten:

TXOSTENA, EUSKARA ETA BERDINTASUNEN BOKALEK EGINA, EPAIKETAK EUSKARAZ EGITEKO PROIEKTUARI BURUZKOA

Osoko Bilkurari helarazi zaio Euskara eta Berdintasuneko bokalek egindako ponentzia, epaiketak euskaraz egiteko proiektuari buruzkoa. Honela dio:

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak bere Euskara eta Berdintasun Bokazioari —Garbiñe Biurrun Mancisidor andreak eta Alfonso Álvarez-Buylla Naharro jaunak osatutakoari— enkargatu dio azterlan bat eta ondoriozko proposamenak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuko Epaitegi eta Auzitegietan epaiketak osorik euskara hutsez (interprete baten beharrik gabe) egiteko proiektu pilotu bat ezartzeko.

Bigarrena.- Hiru lurralde historikoetako epaile batzuen eskaerak jaso ondoren, proiektuan parte hartzeko eginak, eta neurriak eragingo liekeen administrazio eta erakunde txostenak jaso eta gero, proposamen hauek aurkezten dira.

OINARRIZKO ARAU-ESPARRUA

Espainiako Konstituzioaren 3.2 artikulua dioenez, Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorriz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak (3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa) 6. artikuluko 1 eta 2 apartatuetan xedatu duenez:

1. Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
2. Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun sozio-linguistikoa kontuan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.

Arau horiek aplikatuz onartu zuen Eusko Legebiltzarrak 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa. Hau dio 9. artikuluan:

1. Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.
2. Euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta baita epai-jardunak, balio eta eragin-indar osokoak izango dira.
3. Eusko Jaurlaritzak, dagokien organoekin elkar hartuta, Euskal Herriko Justizia Administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa bultzatuko du.

Era berean, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 9. artikulua eduki hau du:

1. Jarraian zehazten diren neurriak hartzea justifikatzeko besteko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztun-kopurua duten agintari judizialen barrutiei dagokienez, zenbait konpromiso hartu dituzte aldeek, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, eta baldintza batekin, alegia, paragrafo honek eskaintzen dituen aukeraz baliatzeak ez dezala epaileak hartu justizia ondo administratzeko oztopotzat. Hauek dira konpromisoak:

a) prozedura penaletan:

- i) organo jurisdikzionalek, aldeetako batek eskatuta, prozedura eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan egingo dutela ziurtatzea; eta/edo
- ii) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan hitz egiteko eskubidea bermatzea akusatuari; edo
- iii) errekerimenduak edo frogak, idatzizkoak zein ahozkoak, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean formulatuta egote hutsagatik onartezinak ez izatea ezartzea; edo
- iv) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza horietan ematea, hala eskatuz gero, prozedura judizial bati lotutako dokumentuak, beharrezkoa bada interpreteak eta itzultzaileak erabilita, eta interesdunei inolako gastu gehigarrikerik eragin gabe;

b) prozedura zibiletan:

- i) jurisdikzio-organoei, aldeetako batek eskatuta, prozesua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan gara dezatela ezartzea; edo

- ii) alde bat epaitegi baten aurrean bertaratu behar denean,

bere eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan hitz egitea baimentzea alde horri, hori dela-eta gastu osagarriari aurre egin behar izan gabe; edo

- iii) dokumentuak eta frogak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan aurkeztea baimentzea, beharrezkoa bada interpreteak eta itzultzaileak erabilita.

c) administrazio-arloan eskudunak diren jurisdikzioen aurreko prozesuetan:

- i) jurisdikzio-organoei, aldeetako batek eskatuta, prozesua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan gara dezatela ezartzea; edo

- ii) alde bat epaitegi baten aurrean bertaratu behar denean,

bere eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan hitz egitea baimentzea alde horri, hori dela-eta gastu osagarriari aurre egin behar izan gabe; edo

- iii) dokumentuak eta frogak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan sortzea baimentzea, beharrezkoa bada interpreteak eta itzultzaileak erabilita;

d) neurriak hartzea, aurreko b) eta c) paragrafoetako i) eta iii) apartatuen aplikazioak eta interpreteen eta itzulpenen balizko erabilerak ez diezaiei gastu osagarriarik ekarri interesdunei.

2. Aldeek hartu dituzten konpromisoak:

a) Estatu batean ezarritako dokumentu juridikoen baliozkotasuna ez baztertzea, dokumentuok eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean idatzita egote hutsagatik; edo

b) Estatu batean egindako dokumentu juridikoei aldean artean duten baliozkotasuna ez baztertzea, dokumentuok eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean idatzita egote hutsagatik, eta dokumentuok hizkuntza hori hitz egiten ez duten hirugarren interesdunen aurka erabili ahal izango direla ezartzea, baldin eta dokumentuaren edukiaren berri ematen badie dokumentua baliarazi nahi duenak; edo

c) Estatu batean egindako dokumentu juridikoei aldean artean duten baliozkotasuna ez baztertzea, dokumentuok eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean idatzita egote hutsagatik.

3. Aldeek konpromisoa hartzen dute eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan emateko Estatuko lege-testurik garrantzitsuenak eta hizkuntza horien erabiltzaileei bereziki dagozkienak, testuok beste modu batean erabilgarri daudenean izan ezik.

Era berean, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231 artikulua hau xedatzen du:

1. Jarduketa judizial guztietan, epaile, magistratu,

fiskal, idazkari eta epaitegi eta auzitegiako gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dute, estatuko hizkuntza ofiziala baita.

2. Orobat, autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta

epaitegi eta auzitegiako gainerako funtzionarioek, baldin eta alderdietako bat ere aurka agertzen ez bada, hizkuntza hori ez dakiela eta horrek defentsa-gabezia sor dezakeela argudiatuz.

3. Alderdiek, haien ordezkariak eta zuzentzen dituztenek nahiz lekuko eta perituek erabili ahal izango dute jarduketa judizialak egiten diren autonomia-erkidegoan orobat ofiziala den hizkuntza, ahozko zein idatzizko adierazpenetan.

4. Autonomia-erkidego bateko hizkuntza ofizialean egindako jarduketa judizialek eta aurkeztutako dokumentuek balio eta eraginkortasun osoa izango dute, gaztelaniara itzuli beharrik gabe. Efektuak izan behar badituzte autonomia-erkidegoko organo judizialen jurisdikziotik kanpo, itzuli egingo dira ofizioz, non eta ez den berezko hizkuntza ofizial bera duen beste autonomia-erkidego bat. Orobat itzuliko dira jarduketak legeek hala xedatzen dutenean edo alderdiek defentsa-gabezia alegatuta eskatzen dutenean.

5. Ahozko edo keinu-hizkuntzako jardueretako interpretea lege prozesal aplikagarrian xedatutakoaren arabera gaituko da.

B.- EPAIKETAK EUSKARA HUTSEAN EGITEKO PROIEKTU PILOTU BAT ABIARAZTEKO JARDUKETAK

Oinarrizko arau-euskarri horretatik eta labur azaldutako errealitatetik abiatuta,

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salako Euskara eta Berdintasuneko Batzordeak hiru lurralde historikoetako epaile eta magistratu guztiak, pertsona bakarreko zein kide anitzeko organoetakoak, gonbidatu zituen judizioak euskara hutsean egiteko proiektu batean parte hartzera, itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak erabili gabe. 2024ko urriaren 2rako, zazpi epailek baino ez zuten adierazi proiektura atxikitzeko interesa zutela.

Bestalde, txostenak eskatu zitzaizkien proiektuak eragin ziezaiekeen edo proiektuan interesa izan zezaketen administrazio, elkargo profesional edo erakundeei, eta honako hauetatik jaso ziren: Eusko Jaurlaritzako

Araubide Juridikoaren sailburuordea, Arabako eta Bizkaiko foru-aldundiak, Estatuko Abokatutza, Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiko letradua, Bizkaiko Abokatuen Elkargoa, Bizkaiko Lan Harremanetako Graduatuen Elkargoa, Euskadiko Udalen Elkarte - EUEDEL, Euskal Enplegu Zerbitzua-Lanbide eta LAB sindikatua.

Nabarmentzekoa da aipatutako erakunde guztiek babesa eman diotela proiektuari, eta, kasu batzuetan, interes handiko ideia zehatzak azaldu dituztela.

Txosten eta ekarpen horiek guztiak ponentzia honi erantsi zaizkio eranskin gisa.

C.- EUSKARA HUTSEZKO EPAIKETAK EZARTZEKO ZAILTASUNAK

Gobernu Salak Auzitegi Nagusiko epaitegi eta auzitegietan epaiketak euskara hutsean (interpretearen beharrik gabe) egiteko proiektu pilotu bat ezartzeko proposamena egiteko erabakia hartu izanak berak agerian uzten du dauden gabeziei erantzun behar zaiela.

Herritarrek eta hainbat erakundek hautemandako gabezia objektiboak. Ildo horretatik, nabarmentzekoa da Europako Kontseiluaren Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren Adituen Batzordearen Ebaluazio Txostena, joan den irailaren 24an argitaratua. Txosten horretan jaso dutenez, orain interesatzen zaigunerako, erronka nagusiak besteak beste justiziaren eremuan agertzen jarraitzen dute, bertan ez baita bermatzen herritarrek beren eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak prozedura judizialean erabiltzeko duten eskubidea. Txostenak azaltzen duenez, Espainian indarrean dagoen legeriak edo haren egungo interpretazioak ez du bermatzen auzitegiek hizkuntza horietan egin ahal izatea prozesu penalak, zibilak edo administratiboak, alderdietako batek eskatuta.

Legeak aurrez zehaztutako epailearen oinarritzko printzipioa gauzatzen duten konstituzio- eta lege-aurreikuspenak lehen muga objektibo dira

ahozko epaiketak euskaraz egin ahal izateko. Proiektu hau premisa horretatik abiatzen da, eta horrek esan nahi du une honetan ezin izango dela printzipio hori inola ere urratu, eta ezin izango direla inola ere banaketa-arauak aldatu, ez eta horri buruzko irizpide gisa ahozko ikustaldiak euskaraz egiteko xedapena sartu ere, eta ezin izango zaiela demandarik banatu proiektuan interesa duten epaileei auziko alderdietako batek judizioa euskaraz egiteko borondatea adierazi duelako.

Era berean, badira proiektu hau benetan ezartzea zailtzen duten elementu objektiboak, hala nola euskara ondo dakiten eta ahozko ikustaldiak osorik hizkuntza horretan egiteko prest dauden epaileen kopuru nahikoa ez izatea —gauza bera esan daiteke ahozko epaiketan parte hartzen duten beste profesional batzuei buruz—: horien parte-hartzerik gabe proiektua ez da bideragarria izango. Auziko alderdiak eurak ahaztu gabe, jakina.

Ildo horretatik, oso interesgarritzat jotzen da, Auzitegi Nagusiari dagokionez, konpromiso bat hartzea, aldian-aldian oroigarriak bidaltzeko profesionalei, proiektu honetara bil daitezen, eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegiren batean sartzen diren epaileei, parte hartzeko interesa izan dezaketen epaileen erregistro eguneratua izateko beti.

Horrek ez du inondik ere eragozten publizitate zabala egin ahal eta behar izatea, alderdi auzilariak epaiketa euskaraz egitea eska diezaieketen organo judizial zehatzei buruz, eta hori bakarrik gauzatu ahal izango da auzigaia banatu ondoren; banatu ere, barruti judizial bakoitzean une bakoitzean indarrean dauden arauen arabera.

Era berean, ezin da alde batera utzi herritarrek eskubidea dutela bi hizkuntza koofizialeko edozeinetan hitz egiteko Justizia Administrazioaren aurrean, nahiz eta prozesua nagusiki euskara izan. Era berean, proiektu honetatik kanpo ere, beti bermatu behar zaie interpretazioa ahozko edozein epaiketatan alderdi direnei edo beste era batera esku hartzen dutenei, baldin eta beren hizkuntza-eskubideak modu legitimoan erabiliz euskaraz egitea erabakitzen badute.

D.- PROIEKTUA EZARTZEKO PROPOSAMENAK

Azaldutako arazoak eta kontsulta egin zaien organismo, administrazio eta erakundeen iritzia ikusita, proposamen hauek egin dira:

1. Epaietak euskara hutsean egiteko prest dauden epaileen erregistro eguneratua izatea. Horretarako, kontsulta egin beharko zaie lekualdatzeagatik edo lehen destino gisa Euskal Autonomia Erkidegora sartzen diren epailei, hargatik eragotzi gabe lurraldeko epaile titular guztiei urtero kontsulta egitea.
2. Proiektuari behar besteko publizitatea ematea, zerikusia duten erakunde, organismo eta administrazioei zabalduz. Elkargo profesionalei, Fiskaltzari, Estatuko Abokatutzari, sindikatuari, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, Eusko Jaurlaritzari, aldundiei, udalei, Euskal Herriko Unibertsitateari eta interesa erakuts dezakeen beste edozeini.
3. Bereizgarriak jartzea euskarazko epaietak egiteko prest dauden titularren organo judizialetan.
4. Organo judizial horiei iradokitzen eta gomendatzen zaie ezen, hartzen duten lehen ebazpenean —demanda onartzeko dekretua edo antzeko beste bat—, eta hainbat inguruabar direla eta duten irizpidearen arabera —auziaren zailtasuna, alderdien kopurua, hirugarrenen esku hartzeko aukera...—, alderdi guztiak jakinaren gainean jar ditzatela epaiketa osorik euskaraz egitea eskatzeko aukera dutela, eta epe bat jar dezatela —15 egun ingurukoa iradokitzen da—, alderdiek egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten eta organoaren titularrak bidezkitzat jotzen duena erabaki dezan.
5. Epaiketa eta prozesua euskaraz garatzea ez da eragozpen izango nahiago duten herritarrek (alderdiak, lekukoak eta perituak) gaztelaniaz

deklaratzeko aukera izan dezaten, eta Interpretazio Zerbitzuaren esku-hartzea izango dute, prozesu guztietan berdin bermatu behar den bezala.

6. Proiektu hau ez da erabiliko zinpekoen epaimahai batek epaitu beharreko zigor-arloko prozesuetarako.

7. Proiektua ez da kide anitzeko organo judizialetan erabiliko, ezta ere, salbu eta atal berean kide guztiak horren alde agertzen badira, betiere unean-unean indarrean dagoen atalen osaeraren arabera, ezin izango baita *ad hoc* atal espezifikorik eratu.

8. Interpretazio Zerbitzuaren esku-hartzea bermatuko da itzultze-errekursoaren fasean, goragoko organoak ahozko ikustaldiaren grabazioaren edukia osorik, zentzuz eta eraginkortasunez eskuratu ahal izan dezan.

9. Era berean, funtsezkoa izango da lan pedagogikoa egitea administrazio, erakunde, organismo, kolektibo eta herritar-talde guztietan, eta, horretarako, ahalegina egin beharko dute bai gobernu-sala honek, bai zerikusia duten gainerako organismo eta administrazioek.

10. Nolanahi ere, prozesuak progresiboa izan behar du, adostasun zabal batek babestua, prozesuaren eraginkortasuna bermatzeko, bai eta zerikusia duten eragile guztiek eta herritarrek, oro har, prozesua onartzen dutela bermatzeko ere.

11. Azkenik, itzulpenaren garrantzia azpimarratu behar da, inolako kosturik gabe eta efikaziaz eta azkartasunez bermatu behar baita, alderdiek aurkeztzen dituzten dokumentuei dagokienez, bai eta interpretazioa ere, beharrezkoa den jardun prozesal guztietan. Prestazio-administrazioak modu eraginkorrean bermatu behar du hori, une honetan dauden zailtasun objektiboak gaindituz, itzulpen- eta interpretazio-zerbitzu horiek gainezkatuta baitaude. Hori da batzorde honen txostena. Osoko Bilkurak, Euskal Autonomia Erkidegoan epaietak euskara hutsean egiteko proiektua ezartzeko proposamenen edukia aztertuta —proposamen horiek Euskara eta Berdintasuneko Batzordeak egindako ponentzian jasota baitaude—, eta hau erabaki du, aho batez:

1.- Plan pilotuaren bigarren faseari ekitea, eta Euskara eta Berdintasuneko Batzordeari agintzea ezen, plan pilotuan parte hartzeko prest agertu diren epaileekin batera, proiektu pilotuaren eduki espezifikoak landu dezala dagokion organo judizial bakoitzean, 4.etik 8.era bitarteko proposamenetan jasotako aurreikuspenak kontuan hartuta. Egin ondoren, Gobernu Salari bidaliko zaizkio, onar ditzan. Behin onartuta, 2., 3., 9. eta 10. proposamenekin batera gauzatuko dira.

2.- Gainerako proposamenak Gobernu Salaren 2025erako helburuen planera eramatea.

E.- GAUR EGUNGO EGOERA

Gobernu Salaren 2025eko otsailaren 28ko osoko bilkuran erabaki hau hartu zuten:

EUSKARAZKO EPAIKETEN PROIEKTU PILOTUA

Salari adierazi zaio Euskararen Batzordeak egindako proposamena, euskarazko epaiketen proiektu pilotuaren berehalako jarduketak jorratzen dituen, 2025eko otsailerako baitaude aurreikusita. Honela dio:

EUSKARAZKO EPAIKETEN PROIEKTU PILOTUAREN BEREHALAKO JARDUKETAK – 2025EKO OTSAILA –

- GOBERNU-SALAKO EUSKARAREN BATZORDEKO BOKALEK PROIEKTU PILOTU HORIETAN DAUDEN ORGANO JUDIZIALEI EMANGO DIETE euskarazko epaiketen proiektu pilotuaren bigarren fasearen hasieraren berri, eta bertan inplikaturako bederatzi organo judizialetan landutako proiektuetako bakoitzaren edukia zehaztuko dute. HORRETARAKO, ORGANO BAKOITZAK HORRI

BURUZKO PLAN BAT EGIN BEHARKO DU –NAHIKOA IZANGO DA ADIERAZTEA NOIZ HASIKO DEN GAUZATZEN PROIEKTUA, BAI ETA KOMUNIKATZEA ERE NOLA HELARAZIKO ZAIEN ALDERDIEI, HURRENGO PUNTUAN AZALTZEN DEN MODUAN.

- GOBERNU-SALAKO EUSKARAREN BATZORDEKO BOKALEK PROIEKTU HAUETAN SARTUTA DAUDEN ORGANO JUDIZIALEI ADIERAZIKO DIETE EGOKI DELA jokabide ontzat ezartzea, hartzen duten lehen ebazpenean –demanda onartzeko dekretua edo antzeko beste bat–, eta hainbat inguruabar direla eta duten irizpidearen arabera –auziaren zailtasuna, alderdien kopurua, hirugarrenek esku hartzeko aukera–, alderdi guztiak jakinaren gainean jar ditzatela epaiketa osorik euskaraz egitea eskatzeko aukera dutela, eta epe bat jar dezatela –15 egun ingurukoa iradokitzen da–, alderdiek egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten eta organoaren titularrak bidezkoz jotzen duena erabaki dezan.
- AUZITEGI NAGUSIKO GOBERNU IDAZKARITZAK eguneratu egingo du epaiketak euskaraz egiteko prest dauden epaileen zerrenda. Horretarako, kontsulta egingo die Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatzeagatik edo lehen destinoagatik sartzen diren epaileei, urte bakoitzaren amaieran egingo den kontsultaz gain.
- AUZITEGI NAGUSIKO PRESIDENTEAK prestazio-administrazioari helaraziko dio itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak indartu beharra, hauek bermatu ahal izateko, inolako kosturik gabe eta eraginkortasun eta azkartasunez: defentsa-eskubidearen titularrei dagokienez, azaroaren 11ko 5/2024 Lege Organikoaren 11. artikuluan aitortutako eskubidea, eta, gainerako

esku-hartzaileei dagokienez, BJLOren 231. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Lege autonomikoaren 9. artikuluan xedatutakoa.

EUSKARA-ORDEZKAITZAREN AZTERKETA EPAIKETEI ETA BESTE NEURRI OSAGARRI BATZUEI BURUZ

Gobernu Salako Osoko Bilkuraren txostena, euskara hutsezko epaiketak egiteko proiektu pilotuaren ezarpenari buruzko azterlanari eta hori garatzeko proposamenei buruzkoa:

“2024ko urriaren 23ko ponentzian landutako «Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuko Epaitegi eta Auzitegietan epaiketak osorik euskara hutsez (interprete baten beharrik gabe) egiteko proiektu pilotu bat ezartzea» izeneko proiektua ikusita;

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrak 2025eko uztailaren 29ko bileran hartutako Akordioa ikusita, zeinak legezkotasun-kontrol negatiboa egin baitzien 1. eta 3. proposamenei eta ondoriorik gabe uzten baitzituen;

Proiektuan borondatez parte hartzea erabaki zuten epaile eta magistratuen ekarpenak eta iradokizunak ikusita,

TXOSTEN hau ematen da, euskara hutsezko epaiketak egiteko proiektu pilotuaren ezarpenari eta hori garatzeko proposamenei buruzkoa.

Proiektu pilotua bere hasierako formulazioan:

Proiektu pilotuak, bere hasierako formulazioan, honako neurri hauek aurreikusten zituen:

1. Euskara hutsezko epaiketak egiteko prest dauden epaileak erregistratzea.
2. Proiektua ezagutzera ematea eta publizitatea ematea.

3. Bereizgarriak jartzea euskarazko epaiketak egiteko prest dauden titularren organo judizialetan.

4. Organo judizialei iradokitzen zaie, hartzen duten lehen ebazpenean eta epaiketa euskara hutsez egiteko aukerari buruz duten irizpidearen arabera, alderdiei jakinaraz diezaietela 15 eguneko epean hori eskatzeko aukera dutela.

5. Alderdiren batek, lekukoren batek edo perituren batek gaztelaniaz deklaratu nahiago badu, itzultzailea jarri beharko da.

6. Proiektu hau ez da erabiliko zinpekoen epaimahai batek epaitu beharreko zigor-arloko prozesuetan.

7. Proiektu hau ez da ezarriko organo judizial kideanitzetan, Ataleko kide guztiek aldi berean hala erabakitzen dutenean salbu.

8. Interpretazio-zerbitzuaren esku-hartzea bermatuko da errekurtsio itzultzaileen kasuan.
Lan pedagogikoa egin behar da Administrazio guztietan.

9. Prozesua pixkanakakoa izango da eta adostasun zabala bilatuko du.

10. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ondoriorik gabe utzi zituen 1. eta 3. proposamenak, legearen aurkakotzat jotzeagatik (bereziki, datuak babesteko araudia urratuko litzatekeelako).

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ondoriorik gabe utzi zituen 1. eta 3. proposamenak, legearen aurkakotzat jotzeagatik (bereziki, datuak babesteko araudia urratuko litzatekeelako).

Aplikatu beharreko esparru juridikoa.

Gaztelania jakin behar da eta hura erabiltzeko eskubidea dago (Espainiako Konstituzioaren 3.1 art.). Gainerako espainiar hizkuntzak

ere ofizialak izango dira dagozkien Autonomia Erkidegoetan, haien Estatutuen arabera (Espainiako Konstituzioaren 3.2 art.); horrek hizkuntza horiek erabiltzeko eskubidea dakar (Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 26ko 82/1986 Epaia). Inor ezin da diskriminatu hizkuntzagatik (Espainiako Konstituzioaren 14. art., Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6.3 art.).

Ezin zaio lehentasunezko tratua eman hizkuntzetako bati (Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 28ko 31/2010 Epaia; Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 5eko 85/2023 Epaia).

Jardun judizialetan hizkuntza erabiltzeari dagokionez, artikulua gidaria Botere Judizialaren Lege Organikoaren (BJLO) 231. artikulua da:

“1. Jardun judizial guztietan, epaileek, magistratuek, fiskalek, Justizia Administrazioaren letraduek eta epaitegi eta auzitegiatako gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dute, Estatuaren hizkuntza ofiziala.

2. Epaileek, magistratuek, fiskalek, Justizia Administrazioaren letraduek eta epaitegiatako eta auzitegiatako gainerako funtzionarioek autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala ere erabili ahal izango dute, baldin eta alderdietatik batek ere aurka egiten ez badu hizkuntza hori ez jakiteak defentsa-gabezia sor diezaiokeela alegatuz.

3. Alderdiek, haien ordezkariak eta zuzentzen dituztenek nahiz lekuko eta perituek erabili ahal izango dute jarduketa judizialak egiten diren autonomia-erkidegoan orobat ofiziala den hizkuntza, ahozko zein idatzizko adierazpenetan.

4. Autonomia-erkidego bateko hizkuntza ofizialean egindako jarduketa judizialek eta aurkeztutako dokumentuek balio eta eraginkortasun osoa izango dute, gaztelaniara itzuli beharrik gabe. Efektuak izan behar badituzte autonomia-erkidegoko organo judizialen

jurisdikziotik kanpo, itzuli egingo dira ofizioz, non eta ez den berezko hizkuntza ofizial bera duen beste autonomia-erkidego bat. Orobat itzuliko dira jarduketak legeek hala xedatzen dutenean edo alderdiek defentsa-gabezia alegatuta eskatzen dutenean.

5. Ahozko edo keinu-hizkuntzako jardueretako interpretea lege prozesal aplikagarrian xedatutakoaren arabera gaituko da.”

Eskualdeko edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Gutunak—Estrasburgon 1992ko azaroaren 5ean eginak eta Espainiak 2001eko irailaren 15ean BOEn argitaratutako tresnaren bidez berretsiak—, bestalde, honako hauek jasotzen ditu: “eskualdeko edo gutxiengoen hizkuntzak sustatzeko ekintza sendo baten beharra, horiek babesteko asmoz” eta “bizitza publikoan eta bizitza pribatuan eskualdeko edo gutxiengoen hizkuntzen ahozko eta idatzizko erabilera erraztea eta/edo sustatzea” (7.1 artikuluko c eta d apartatuak). Aurrekoarekin bat etorritik, hau ere aurreikusten du (7.2 art.):

“Aldeek konpromisoa hartu dute ezabatzeko, oraindik egin ez badute, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat erabiltzeko egon daitezkeen bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo lehentasun justifikatu gabe oro, alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea helburutzat izan dezaketenak. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez da hartuko eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hiztunen aurkako diskriminazio-ekintzatzat, neurrian helburua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainerako herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hiztun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada.”

Justiziaren arloan (9. art.), Gutunak aurreikusten du Aldeek konpromisoa hartzen dutela, zigor-, zibil- eta administrazio-

prozeduretan, “alderen batek eskatuta, jurisdikzio-organismoek prozedura eskualdeko edo gutxiengoen hizkuntzetan egitea bermatuko dutela” (9.1 artikuluko a.i, b.i eta c.i apartatuak).

Espainiako Erresumaren betetze-mailari buruzko seigarren txostenean (2017-2021), honako hau jasotzen da (15. eta 16. orrialdeak):

“Eskualdeko edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Gutuneko Adituen Batzordeak, baita Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak ere, behin eta berriz gomendatu dute Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa³⁴ (BJLO) aldatzea, prozedura judizialetan hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko alderen batek hala eskatzen duenean; ondorioz, BJLOren 231. artikulua erreforma dakar horrek.

Espainiak uste du BJLOren egungo idazkera bateragarria dela Gutunaren 9. artikulua espirituarekin, eta hala helarazi dio Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeari bere betetze-txostenetan eta Adituen Batzordeak in situ egindako bisitetan.

Artikulu honen 3. apartatuak bermatzen du alderdietako edonork, haien ordezkariak, perituekin eta lekukoekin batera, hizkuntza ofiziala den hori erabili ahal izango dutela autonomia-erkidego horretan gertatzen denean, bere ahozko edo idatzizko agerpenetan parte hartzen duten bakoitzean. Prozesuan parte hartzen duen orok ziurtatuta dauka Autonomia Erkidego horretako berezko hizkuntza erabiltzeko aukera, hala nahi badu. Halaber, ez da beharrezkoa izango berezko hizkuntza ofizialak dituzten autonomia-erkidegoetan gaztelania ez den beste hizkuntza ofizial batean bidaltzen diren dokumentuak itzultzea.

Epaile, magistratu, fiskal eta idazkari judizialen kasuan (gaur egun Justizia Administrazioaren Letraduak deituak), baita justizia-administrazioaren zerbitzura dauden gainerako funtzionarioen kasuan ere, 2. apartatuak arau pixka bat desberdina ezartzen du: hizkuntza ofiziala ere erabili ahal izango dute, baldin eta alderdietako inork

aurkakotasunik agertzen ez badu, babesgabetasuna eragin dezakeen ezjakintasuna alegatuz.

Muga hori zerbitzari publikoentzat bakarrik ezartzen da, eta ez da bateraezina Gutunaren 9. artikulua idazkerarekin; izan ere, artikulua horrek estatuak premiatzen ditu jurisdikzio-organismoek prozedura eskualdeko edo gutxiengoaren hizkuntza batean burutzea ahalbidetu dezaten alderen batek hala eskatzen duenean, eta espainiar legeriak hori bera baizik ez du uzten bere egungo idazkeran. Gaur egun indarrean dagoen espainiar araudiaren muga bakarrak gainerako hizkuntza ofizialen erabilera murrizten du gaztelaniaren kaltean, baldin eta prozedura judizialeko alderdietako batek hizkuntza ez dakiela adierazten badu, babesgabetasun-egoera bat edo prozesu-desabantaila bat eragin dezakeenean.”

Egoeraren analisia.

Euskararen erabilera Justizia Administrazioan normalizatzea, neurri handi batean, ezarri beharreko lurraldeko errealitate soziolinguistikoaren arabera da. Era berean, lurralde bakoitzeko operadore juridiko desberdinek euskaraz duten ezagutzaren arabera da, eta eraginkorrak da informazio-mailan edo lehen harremanetan Udalerriko Justizia Bulegoetan.

Epaitegietan zailtasunak daude epaiketak osorik euskaraz garatzeko, hasieran gaztelaniaz prestatzeko inertzia dagoelako; horregatik, gomendagarria litzateke prozesuan parte hartzen duten profesionalari hizkuntzaren erabilera aldeztu aurretik eskaintzea.

Epaileek, magistratuek, fiskalek, Justizia Administrazioaren Letraduek eta Epaitegi eta Auzitegietako gainerako funtzionarioek ziurtatu beharko dute beren aldetik euskara erabiltzeak ez diela babesgabetasunik eragiten alderdiei (BJLOren 231.2 artikulua), eta

horregatik gomendagarria da epaiketari eta/edo deklarazioei formatu elebidunean hasiera ematea.

Interprete baten premia dela-eta epaiketak eta/edo deklarazioak bertan behera utzi beharraz ekarpenak jaso diren arren, itzulpen-zerbitzuak berretsi du berehala esku har dezaketela, aurrez aurre ez bada, tresna telematikoen bidez gutxienez.

Proiektua sustatzeko eta hobetzeko proposamenak.

Euskara hutsezko epaiketak egiteko proiektu pilotua sustatzeko eta hobetzeko, eta, oro har, Autonomia Erkidego honetako herritarren hizkuntza-eskubideak babesteko, honako hobekuntza-proposamen hauek egiten dira:

1. Euskararen erabilerak ezin izango du atzerapenik eragin prozesuan; bereziki, epaiketak eta/edo deklarazioak bertan behera uztearen bidez, horiek interprete baten berehalako esku-hartzearekin egin ahal izango baitira.

2. Alderdiari iradokitzen zaio epaiketa osorik euskaraz egiteko aukera eskaintzea, eta arrazoizko epe bat ematea hizkuntza hori erabili nahi duten adierazteko. Hori dagokion ebazpen judizialaren bidez egingo da, epaileak edo magistratuak gaiaren berri izan eta euskara hutsez egiteko aukera baloratu bezain laster, eta, gutxienez, ikustaldia baino hamabost egun lehenago, alderdiak ekintza horretan egin nahi duten hizkuntzaren erabilera baloratu ahal izan dezaten. Alderdien artean adostasuna egonez gero, epaiketa osorik euskaraz egin ahal izango da. Bestela, euskara erabili nahi duen alderdiari horretarako aukera eman beharko litzaioke, eta kontrako alderdiari interpretea jarri. Kasu horietan, epaileak gaztelania edo, gutxienez, formatu elebiduna erabili beharko du (BJLOren 231.2 art.). Lurraldeko epaile eta magistratuei ebazpen

judizialaren proposamena helaraziko zaie, formatu elebidunean, eskaintza hori jasotzen duena.




Oro har, epaiketa eta/edo deklarazio bat hastean, gomendatzen da ekitaldia euskaraz egiteko prest dagoen epaileak edo magistratuak formatu elebiduna erabiltzea, alderdiek eta/edo deklaratzailleek aukera horren berri izan dezaten.”

12.— EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA SISTEMAREN GOBERNU-KUDEAKETA

12.1.- GOBERNU SALAREN GOBERNU KUDEAKETA


GOBERNU SALARAKO LAN-ESKEMA Kudeaketa autonomoaren antolaketa






GOBERNU-SALARAKO LAN-ESKEMA

Kudeaketa heteronomoaren antolaketa





12.2.- EAEANKO PRESIDENTEAREN ETA AUZIALDIKO AUZITEGIETAKO PRESIDENTEEN TALDEA

Auzialdiko Auzitegietaiko presidenteen gobernu-funtzioak Justizia Auzitegi Nagusiko Presidentetzarekin eta Gobernu Salarekin uztartzeko, eta, era berean, Auzialdiko Auzitegiei taldean eragiten dieten erabakiak hartzean irizpide-gortasuna ahalbidetzeko, Presidentetzak Auzialdiko Auzitegietaiko Presidenteen Talde bat sortu zuen, Autonomia Erkidegoko hamalau Auzialdiko Auzitegietaiko presidenteak biltzen dituen. Talde horrek bilera bat egiten du presidentearekin lau hilean behin (urtean hiru aldiz), eta bilera horietan aurrez lantaldeetan jorratu diren gaiak eztabaidatzen dira. Zehazki, interes komuneko gaiak hautatzen dira, lantaldeetan aztertzen dira, Auzialdiko Auzitegietaiko presidenteen Taldean proposamen gisa eztabaidatu eta onartzen dira, eta, azkenik, proposamenak Gobernu Salari helarazten zaizkio, hark bere gain har ditzan eta alda ditzan. Zehazki, Gobernu Salak honako akordio hauek hartu ditu Auzialdiko Auzitegietaiko Presidenteen Taldearen proposamenetatik abiatuta: kanpo-ordezkapenatarako deialdi-irizpideak, ordezeko epaileen hasierako eta etengabeko prestakuntza, Auzialdiko Auzitegietaiko presidente desberdinek ordezeko epaileen artean aldi bereko deialdiak egitea saihesteko irizpideak, Auzialdiko Auzitegiei laguntzeko neurriak, Auzialdiko Auzitegien jardunagatiko kexak eta iradokizunak, komunikabideek, ekoiztetxeek eta partikularrek jurisdikziozkoak ez diren justizia-espazioetan irudiak lortzeko eta soinua grabatzeko baimena, ordezeko epaileen deialdietako txandakatzea, eta animalien ongizateari buruzko legea eta animaliak justizia-jauregietara sartzea.

**AUZIALDIKO
AUZITEGIETAKO
PRESIDENTEEN
BILERA
2025-02 05**

1.- Jurisdikzio-gaien
eta administrazio-gaien
arteko mugarritzea

2.- Bitarteko
funtzionarioen
izendapena eta
prestakuntza

3.- Auzialdiko
Auzitegiak, 1/2025
Lege Organikoa
- Instrukzio-
epaitegien eta
Indarkeria
Epaitegien lan-
kargen
mugarritzea
- Bulego
Judizialaren
diseinua

**AUZIALDIKO
AUZITEGIETAKO
PRESIDENTEEN
BILERA
2025-05 27**

1.- Auzialdiko
Auzitegiak, 1/2025
Lege Organikoa
Autonomia Erkidegoko
organo judizialen lan-
kargak

2.- Informazio-
jardunaldiak,
Auzialdiko Auzitegiak
ezartzean
akoplamendu-
prozesuaren
antolaketari, diseinuari
eta garapenari
buruzkoak

3.- AVANTIUS sistema
lege berrira egokitzea


4.- Justizia-jauregien
berrantolaketa

**AUZIALDIKO
AUZITEGIETAKO
PRESIDENTEEN
BILERA
2025-11 06**

1.- Auzialdiko Auzitegiak
ezartzea
Auzialdiko Auzitegiako
Bulegoak eratzeko
prozesuaren garapena. I.
Fasea
- Auzialdiko
Auzitegiak
ezartzeko
aurreikuspena. III.
Fasea
- Familia, Haurtzaro
eta Gaitasun atalei
buruzko gaien
inguruko eztabaida

2.- Ordezko epaileen
deialdietan dauden
zailtasunei buruzko
eztabaida

3.- AVANTIUS sistemako
moduluari buruzko
iradokizun-eskaera,
EAEANko Presidentetza
Auzialdiko Auzitegiak
Presidentetza taldeari
dagokionez



13. — 2026KO HELBURUEN PLANA

1. JUSTIZIA, BENETAKO BABES JUDIZIALAREN ZERBITZURA ANTOLATUA
2. JUSTIZIA TEKNOLOGIKOKI AURRERATUA
3. JUSTIZIA, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO IRISGARRIA
4. JUSTIZIA, GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMAK BABESTEKO
5. JUSTIZIA, ERRESTAURAZIOA ETA BITARTEKARITZA BARNE HARTUTA
6. JUSTIZIA ABEGITSUA ADINGABE ETA NERABEENTZAT
7. JUSTIZIA: HEZKUNTZA- ETA UNIBERTSITATE-SEKTOREAREKIN KONEKTATUA
8. JUSTIZIA, ZERBITZU PUBLIKOA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAREKIN EMATEN DUENA
9. JUSTIZIA, GIZARTE ELEBIDUNEAN
10. JUSTIZIA, BERDINTASUNAREN ALDE

1.- JUSTIZIA, BENETAKO BABES JUDIZIALAREN ZERBITZURA ANTOLATUA

1.1.- 2021. URTEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN PLANTEAMENDUA

Antolamendu judizialaren esparruan, lehentasunezko zereginetako bat da babes judizial efikaz eta efizientearen beharretara egokitzea planta judizial organikoa (dauden organo judizialak, lurralde-atxikipeneko epaileak, destinoaren zain dauden epaileak, Auzitegi Nagusiari BJLOren 355. artikuluan ezarritako bidetik atxikitako epaileak) eta funtzionala (laguntza-neurriak, ordezeko epaileak eta ordezeko magistratuak). Horretarako, jarduera-ildo bat protokolizatu behar da, bi eremutan definitua: i) lehenengoa: ordena juridiko bakoitzean dagoen egoeraren azterketa, haren karga jurisdikzionala zedarritzeko; ii) bigarrena: indarrean dauden egiturazko beharrian judizialen azterketa, plantaren gehikuntzarik ezean indartze funtzionalen bidez bideratu behar dira eta.

Ordena juridiko bakoitzean dagoen egoera aztertzearen helburua da azken hiru urteetan izan duten lan-karga zedarritzea, eta, horrela, modu fidagarrian bereiztea egiturazko defizita duten eremuak, defizit hori planta judizialaren gehikuntzarekin bakarrik zuzendu ahal zaizkienak. Ikuspegi horretatik, puntu neutro judizialean deskargatutako estatistikak dira funtsezko informazio-tresna. Azterketa hori egin ondoren, planta handitzeko premiei eman behar zaie lehentasuna; izan ere, azken urteetako esperientziari erreparatuta, plaza sortu berriak ez dira iritsiko egungo egiturazko premiak asetzera. Azken urteotako jarduera-ildoari jarraituz, Auzitegi Nagusiaren Osoko Bilkurari dagokio dauden egiturazko beharrak aztertzea eta horien artean lehentasunak zehaztea, unitate judizial berriak sortzea proposatzeko orduan.

Informazio hori bera oinarri hartuta, plantaren handitzearekin bete ezin diren egiturazko beharrizan judizialen azterketa eta mugaketa, lehen aipatutako arrazoiak direla medio, lurralde-atxikipeneko epaileen, destinoaren zain dauden epaileen, Auzitegi Nagusiari atxikitako epaileen edo laguntza-neurrien atxikipenetik igarotzen diren jarduera-ildoen barruan sartu behar dira. Indarrean dagoen araudiaren arabera, laguntza-neurriak direnean, erabakia Presidentetzari dagokio, Gobernu Salari kontuak emanda (lurralde-atxikipeneko eta destinoaren zain dauden epaileak, BJLOren 347. bis artikulua eta Karrera Judizialeko Erregelamendua) edo Gobernu Salari (BJLOren 355. artikulua, Auzitegi Nagusiari atxikitako epaile edo magistratuei dagokienez, eta BJLOren 216 bis artikulua eta Karrera Judizialeko Erregelamendua, laguntza-neurriei dagokienez).

Beharrezkoa bada, horren osagarri, karrerako epaileek osatu ezin dituzten titularraren hutsuneak eta absentziak betetzeko, eguneratu egingo dira ordezkoko epaileak eta ordezkoko magistratuak deitzeko irizpideak, Gobernu Salak dagoeneko hartutako erabakietan finkatutakoak, kontuan hartuta bai egoera berriak bai eta erabilgarri dagoen aurrekontua. Era berean, Gobernu Salak borondatezko ordezkapenen arloan zer-nola jokatu behar duen argitu behar da, haren funtzionaltasuna ahal den neurrian hobetzeko.

Esparru horretan, funtsezkoa da, halaber, dekanotzen, Auzitegi Nagusiko Presidentetzaren eta Gobernu Salaren arteko komunikazio egokia, barruti judizial bakoitzeko epaitegi eta auzitegien kudeaketari dagozkion gobernu-arazoei aurre egiteko. Ildo horretan, Autonomia Erkidegoko Dekanoen Taldea sortu eta bultzatuko da. Talde horretan, denen intereseko gaiei buruz eztabaidatu eta proposamenak egiteko aukera

izango dira. Gero, han hitz egindakoak Gobernu Salari helaraziko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin eta, hala badagokio, onar ditzan.

Azkenik, beharrezkoa da egoitza judizialen plana egiten laguntzea, besteak beste, lurralde historikoetako hiru hiriburuetan kontzentratzen diren eraikinen pilatze-arazoak konpontzeko.

1.2.- 2022. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Protokoloak finkatu dira epaitegi eta auzitegiei laguntzeko neurrien proposamena Gobernu Salak bere gain hartzerakoan.
- Bisitak egin dira barruti judizialetara, Amurrio, Azpeitia eta lurralde historikoetako hiru hiriburuetara izan ezik.
- Autonomia-erkidegoko dekanoekin bi bilera egin dira, eta bertan hiru lantalde sortu dira gobernu-ekintza hobetzeko: ordezkoko epaileak eta ordezkoko magistratuak deitzea; kexak eta erreklamazioak; eta laguntza-neurriak eskatzea.
- Lankidetzataldean jardun gara eta, horri esker, erabilera judizialak Mapfre eraikinetik bereizi dira, azkeni, honako hauetan zentratuta: lan-arloko epaitegietan, administrazioarekiko auzien epaitegietan, merkataritza-arloko epaitegietan, zerbitzu erkideetan, judizio-aretoetan eta prestakuntza-aretoan.

1.3.- 2023. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Kanpoko ordezkapenak egiteko irizpideak eguneratu dira, Gobernu Salaren 2023ko urriaren 27ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez.
- Borondatezko ordezkapena egiteko agindu da, Gobernu Salaren 2023ko azaroaren 24ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez.
- Hiru bilera egin dira dekanoen taldearekin (martxoaren 29an, ekainaren 13an eta urriaren 17an), eta honako gai hauei buruzko proposamenak egin dira: i) barruti judizialeko ordezkoko epaileen aldibereko deialdiak koordinatzeko irizpideak; ii) dekanotzek egiten dituzten laguntza-neurrien eskaerak bateratzeko irizpideak, Gobernu Salak azter ditzan; eta iii) hobetzeko eskaerak izapidetzeko eta ebazteko eta kexak formulatzeko irizpideak. Ontzat eman ditu proposamen horiek Gobernu Salak. Halaber, talde horretan beste hiru gai aztertzen hasi dira: i) ordezkoko epaileentzako deien lehentasun-ordena; ii) ordezkoko epaileen prestakuntza; iii) jurisdikzionalak ez diren gune judizialetan irudiak lortzeko eta soinuak grabatzeko baimena; eta iv) Animalien Ongizateari buruzko Legea aplikatzeko irizpideak, lagun egiteko animaliak eraikin judizialetan sartzeari dagokionez.

1.4.- 2024. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Bilboko Mapfre eraikinaren obren jarraipena egitea (Merkataritza, Administrazioarekiko Auzi eta Lan Arloko Epaitegien egoitza, bai eta zerbitzu orokor eta osagarri batzuen ere).
- Lantalde bat eratzea Buenos Aires eraikinean egin beharreko eraberritzeak zehazteko, jurisdikzio-ordena penalerako instalazio egokiak izan ditzan.
- Egoitza judizial jasangarrien planaren esparruan, Donostian eta Gasteizen organo judizial sortu berriak hartzeko guneak sortzeko behar diren neurriak aztertzea.
- Autonomia Erkidegoko mapa judiziala egitea, unitate judizial berriak sortzeko eskaerak onartzeko planta judizialaren beharrak islatzeko, bai eta organo judizialei laguntzeko neurrien proposamenak ere.
- Justiziaren plan estrategikoaren IE7 garatzeko taldeetan parte hartzea, honako gai hauetan: Justizia enpatiko eta argiagoa, eta justizia azkarragoa eta aurreikusgarriagoa.
- Autonomia-erkidegoko dekanoekin hiru hilean behin bilerak egitea, 2023an ebazteke dauden gaiei buruzko proposamenak egiteko gobernu-salari, eta, hala badagokio, gai berriak aztertzeko.

1.5.- 2024. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Bilboko Mapfre eraikinean hasitako obren jarraipena egitea (Merkataritza, Administrazioarekiko Auzi eta Lan Arloko Epaitegien egoitza, bai eta zerbitzu orokor eta osagarri batzuen ere).
- Autonomia Erkidegoko mapa judiziala egitea, unitate judizial berriak sortzeko eskaerak onartzeko planta judizialaren beharrak islatzeko, bai eta organo judizialei laguntzeko neurrien proposamenak ere. Gobernu Salak 2024ko martxoaren 26ko Osoko Bilkuran onartu zuen.
- Justiziaren plan estrategikoaren IE7aren garapen-taldeetan parte hartzea, gai hauetan: justizia enpatiko eta argiagoa, eta justizia azkarragoa eta aurreikusgarriagoa.
- Autonomia-erkidegoko dekanoeekin hiru hilean behin bilerak egitea proposamenak egiteko gobernu-salari. Hiru bilera egin dira: otsailaren 5ean, maiatzaren 29an eta urriaren 23an. Horien barruan, honako hauek onartu ziren: komunikabideek, produktoreek eta partikularrek jurisdikzionalak ez diren espazio judizialetan irudiak lortzeko eta soinua grabatzeko baimen-proposamenak; eta Animalien Ongizateari buruzko Legea eta animaliak eraikin judizialetan sartzea. Gobernu Salak 2024ko uztailaren 19ko Osoko Bilkuran onartu zituen biak. Ordezko epaileen eta magistratuen deialdiak txandakatzeko proposamena ere onartu zen, Gobernu Salaren Osoko Bilkuran eztabaidatu gabe baitzegoen.

1.6.- 2025. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren arloko Neurriei buruzko Lege Organikoak Gobernu Salari esleitzen dizkion eginkizunak betetzea, gai hauetan: I) Txostena (Auzialdiko Auzitegietan Familia, Haurtzaro eta Gaitasun atalak sortzea, edo aipatutako Auzitegiko Atal Bakarreko kide diren epaile bati edo batzuei Familia, Haurtzaro eta Gaitasun gaiak soilik eta/edo modu eskusiboan ezagutzeko eskumena egozte, lan-kargak hala justifikatzen duenean —BJLOren 86. artikulua eta zarpigarren xedapen iragankorra—; probintzia bereko muga kide diren hainbat alderdi judizialetako Atal Bakarrak edo Instrukzio Atalak elkartzea —BJLOren 88. artikulua—; Atal Bakarreko edo Instrukzio Ataleko kide den epaile bati Alderdi Judizialean Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko gaiak soilik eta/edo modu eskusiboan ezagutzeko eskumena egozte, lan-kargak hala justifikatzen duenean —BJLOren 89. artikulua—; Atal Bakarreko edo Instrukzio Ataleko kide den epaile bati Alderdi Judizialean Haurren eta Nerabeen Aurkako Indarkeriaren arloko gaiak soilik eta/edo modu eskusiboan ezagutzeko eskumena egozte —BJLOren 89. bis artikulua—; II) **Proposamena** (Atal espezializatuak sortzea —BJLOren 167. artikulua—; Auzialdiko Auzitegietako presidentea izendatzea —BJLOren 166. artikulua—; zerbitzu komunak sortzea —BJLOren 438. artikulua—); III) **Erabakia** ((Auzialdiko Auzitegietan, Probintzia Auzitegietan eta beste auzitegi batzuetan gaiak banatzeko arauak onartzea eta aldatzea —BJLOren 152. rtikulua eta 167.1 eta 3 artikulua—; dagokion Ataleko epaile eta magistratuen Batzordeak proposatuta, denbora mugatu baterako

gaien banaketatik erabat edo zati batean liberatzea — 167.2 artikulua—; konplexutasun bereziko kausen instrukzioa edo prozesuen ebazpena egiteko, gaia egokitu zaionarekin batera, epaileak eta magistratuak izendatzea —BJLOren 167.4 artikulua—; prozesuko zerbitzu komunaren funtzionamenduko anomaliak —BJLOren 168. artikulua—; ordezkapen-planen behin-behineko onarpena —BJLOren 210. eta 211. artikulua—).

- Autonomia Erkidegoko Mapa Judiziala eguneratzea planta judizialaren beharrei dagokienez, sarrera-datuen arabera eta 2024ko datuak kontuan hartuta.
- Autonomia Erkidegoko mapa judizialaren proposamena, ebazkizun dagoena eta pilatuta dagoena kontuan hartuta.
- Bilboko Mapfre eraikinean hasitako obren jarraipena egitea (Merkataritza, Administrazioarekiko Auzi eta Lan Arloko Epaitegien egoitza, bai eta zerbitzu orokor eta osagarri batzuen ere).
- Barroetako eraikinean espazioak gaitzea sortuko diren unitate judizial berrietarako.
- Buenos Aires eraikinean egin beharreko eraberritze-lanak taxutzea, jurisdikzio-ordena penalerako instalazio egokiak izan ditzan.
- Autonomia-erkidegoko dekanoei hiru hilean behin bilerak egitea proposamenak egiteko gobernu-salari. 2025eko otsailaren

4rako jarri dute hurrengoa. Gai hauek aztertuko dira: agintaritza judizialek eta prestazio-administrazioak modu partekatuan baliatzea eskumenak; jurisdikzio- eta gobernu-arazoak mugatzea, eta bitarteko funtzionarioen izendapena eta prestakuntza.

1.7. 2025. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

* 1/2025 Lege Organikoan aurreikusitako Auzialdiko Auzitegiak eratzeari lotutako txostenak, proposamenak eta erabakiak sortu dira. Zehazki, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren ataletarako planta handitzeko proposamenak eta Autonomia Erkidegoko Familia, Haurtzaro eta Gaitasun ataletako epaile-plazaren erregimen juridikoari buruzko kontsultak egin dira.

* Autonomia Erkidegoko hamalau alderdi judizialetan eta Abokatutzako eta Prokuradoreen hiru Elkargo profesionaletan Auzialdiko Auzitegiei, Bulego Judizialaren egitura organikoari eta Bulego Judizialeko lantaldeen antolaketa funtzionalari buruzko informazio-jardunaldiak burutu dira.

* Bilerak egin dira Auzialdiko Auzitegietak presidentekin, Probintzia Auzitegietak presidentekin, Justizia Auzitegi Nagusiko Saletako presidentekin, Gobernu Idazkaritzarekin eta Idazkari Koordinatzaileekin, Prozesu Izapidetzako Zerbitzu Erkideak eta Zerbitzu Orokorretako lantaldeen antolaketa funtzionalari buruz.

* 1/2025 Lege Organikoa ezartzeko Behin-behineko Batzordea sortu eta garatu da, Gobernu Idazkaritzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Justizia eta

Giza Eskubideen Sailarekin batera. Bi bilera egin dira, honako gai hauek aztertzeko:

Autonomia Erkidegoko Mapa Judiziala eguneratzea, epaile-planten beharrei dagokienez, Justizia Puntu Neutroan jasotako 2025eko sarrera-datuen arabera.

* Bilboko Mapfre eraikinean hasitako obren jarraipena egitea (Merkataritza, Administrazioarekiko Auzi eta Lan Arloko Epaitegien egoitza, bai eta zerbitzu orokor eta osagarri batzuen ere).

Hiruhileko bilerak egitea Autonomia Erkidegoko Auzialdiko Auzitegietak presidentekin, Gobernu Salara bideratuko diren proposamenak lantzeko. Bilera horietan honako gai hauek aztertu ziren: i) Auzialdiko Auzitegiak eta Auzialdiko Auzitegiko bulegoak eratzeko prozesua; ii) bitarteko funtzionarioen izendapena eta prestakuntza; iii) agintari judizialen eta hornidura-administrazioaren arteko konpetentzien jarduna eta erabilera partekatua; iv) jurisdikzio-gaien eta gobernu-gaien arteko mugarritzea eta v) EAEANko Presidentetza Auzialdiko Auzitegietak Presidentetza modulua Avantius kudeaketa prozesaleko sisteman. (e)rako jarri dute hurrengoa.

1.8.- 2026. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- *Auzialdiko Auzitegiak eta Auzialdiko Auzitegietak Bulego Judiziala eratzearen ebaluazioa.*
- *Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi judizialak elkartzeko proposamena idaztea, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren atalak espezializatzeko.*
- *Adingabeen eta Nerabeen Aurkako Indarkeriaren atalak sortzearen bideragarritasuna analizatzea.*
- *Autonomia Erkidegoko Mapa Judiziala eguneratzea, epaile-planten beharrei dagokienez, Justizia Puntu Neutroan jasotako 2025eko sarrera-datuen arabera.*
- *Planta judiziala handitzeko proposamena, Justizia Puntu Neutroak emandako 2025eko sarrera-datuetatik eta jurisdikzio-ordena bakoitzari esleitu beharreko lan-kargari buruz indarrean dauden akordioetatik abiatuta.*
- *Berroeta eraikinean espazioak gaitzea sortzen diren epaile-plazetarako eta Bilboko Emakumearen Aurkako Indarkeriaren atalean alderdi judizialak elkartzetik erator litezkeenetarako.*
- *Hiruhileko bilerak egitea Autonomia Erkidegoko Auzialdiko Auzitegietak presidentekin, Gobernu Salara bideratuko diren proposamenak lantzeko. Hurrengoa 2026ko apirilaren 29rako finkatuta dago. Honako hauek analizatuko dira: i) Auzialdiko Auzitegiko bulegoak ezartzearen garapena; ii) jurisdikzio-*

gaien eta gobernu-gaien arteko mugarritzea eta iii) EAEANko Presidentetza Auzialdiko Auzitegieta Presidentetza modulua Avantius kudeaketa prozesaleko sisteman.

2.- JUSTIZIA TEKNOLOGIKOKI AURRERATUA

2.1.- 2021. URTEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN PLANTEAMENDUA

Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuen arteko lankidetzak hitzarmena sinatzea, lehenengoak bigarrenari Advantius justiziaren kudeaketa-sistemaren erabilera lagatzeko (bertan sartzen dira Advantius prozesu-kudeatzailea, Asigna doako laguntza juridikoaren sistemaren aplikazioa eta profesionalen eta herritarren ataria), espediente judizial elektronikoa behin betiko ezartzeko prozesuaren lehen fasea da, eta 2023rako aurreikusi da aldi baterako helburua. Kudeaketa elektronikoko sistema hori beste autonomia-erkidego batzuetan finkatuta dago (Nafarroan, Kantabrian eta Aragoi), eta CTAJk homologatu zuen 2019an, epaileek eta magistratuek nahitaez erabiltzeko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren azaroaren 22ko 1/2018 Jarraibidean jasotako baldintzetan. Horregatik, elebitasun ofizialera egokitzeaz gain, ahalegin bateratua egin behar da berehalako balio erantsia emateko – hargatik eragotzi gabe etorkizuneko aplikazioak –, bulego judizialaren antolaketa-egiturara egokitzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko organo judizialen berariazko beharrei dagokienez. Esparru horretan kokatzen da Avantius Justizia Kudeatzeko Sistemaren Ezarpen eta Jarraipen Batzordearen eta Gobernu Salaren arteko koordinazioa, EAEko Auzitegi Nagusiaren Presidentetzaren bitartez Gobernu Salaren eta

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren arteko lankidetzak, Justizia Digitalaren Plana gauzatzeko Batzorde Mistoaren barruan.

2.2.- 2022. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Avantius Ezartzeko Batzordea sortu zen, 2022ko apirilean, eta haren hedapena prestatzeko bilerak egin ziren, Avantius berariazko premietara egokitzeko, hala nola elebitasunera, bulego judizialera eta Arconte grabazio-sistema gisa integratzera.
- Ezarpen Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoko hedapen-mapa onartu zuen, 2022ko ekainean, eta aldizkako bilerak egin zituen abokatuen, prokuradoreen eta lan-harremanetako graduatuen elkargoen ordezkariekin eta polizia judizialarenekin.
- AVANTIUS 2022ko irailaren 19an hasi zen hedatzen, eta autonomia-erkidego osoko administrazioarekiko auzien eta lan-arloko ordenan, Arabako Lurralde Historikoko ordena zibilean eta penalean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko ordena zibilean eta penalean hedatu zen.

2.3.- 2023. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- AVANTIUS Euskal Autonomia Erkidego osoan hedatzen amaitzea.
- Hobekuntza-ekintza jakin batzuk ezartzea, 2023an inplementatutako AVANTIUSen bi bertsioetan, honako arlo

hauetan: izapidetze lagundua, Dekanotzaren testuinguruaren kudeaketa, abokatu eta prokuradoreekiko komunikazioak, Auzitegi Gorenerako igorpenak, atestatu telematikoak – Profesionalarentzako Zerbitzuen Atariaren bidezkoak nahiz web bidezko zuzeneko sarbidez–, gordailuen eta artxiboen modulua, presako barneratzeen erregistroa, Erregistro Zibila eta hirugarrenetikiko komunikazio telematikoak, egoitza judizial elektronikoa.

2.4.- 2024. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Prozedura judizial digitalaren egoeraren diagnostikoa egitea, 6/2023 Errege Lege Dekretua indarrean jarri zenetik hasita. Errege Lege Dekretu horrek, besteak beste, justizia zerbitzu publikoaren efizientzia digitalaren eta prozesalaren neurriak sartzen ditu.
- AVANTIUSen erabiltzaileen beste prestakuntza-jarduera aurreratu bat egitea, izandako esperientzian oinarrituta.
- 2024. urterako aurreikusitako AVANTIUSen hiru bertsioetan hobekuntza-ekintza jakin batzuk ezartzea. Horien artean: auzialdian eta instrukzioan integratutako organoen hasiera-idazkien erregistroa, Puntu Neutro Judizialaren Kontsultak, kide anitzeko organoen seinalatzeak, testualizazio-sistemaren ezarpena, estatistikak, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren modulua, doako justiziaren modulua, zigor-arloko betearazpenaren eta justizia errestitutiboaren modulua, gobernu-idazkaritzaren modulua, egoitza judizial elektronikoa,

irudiak atestatu telematikoetan integratzeko gaitasuna, judizio azkarren agendak, ebazpenak Dokumentazio Judizialeko Zentrora igortzea.

- Judizio-salak prozedura judizial digitalaren beharretara egokitzea.
- 6/2023 Errege Lege Dekretuaren 57. eta 58. artikuluetan diseinatutako lagundutako jarduketan sistema abian jartzeko proiektu pilotu bat egitea eta gauzatzea, banku-kontratazioaren edo aireko garraioaren baldintza orokorreari dagokienez, besteak beste.

2.5.- 2024. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Prozedura judizial digitalaren egoeraren diagnostikoa, 6/2023 Errege Lege Dekretua indarrean jarri zenetik hasita. Errege Lege Dekretu horrek justizia zerbitzu publikoaren efizientzia digitalaren eta prozesalaren neurriak onartu ditu. AVANTIUSen Garapen Batzordeak 2024ko urtarrilaren 15eko bilkuran onartu zuen, eta Gobernu Salaren Osoko Bilkurari eman zitzaion horren berri urte bereko otsailaren 2ko bilkuran.
- AVANTIUSen erabiltzaileen prestakuntza-jarduera aurreratua egitea.
- 2024an ezarritako AVANTIUSen hiru bertsioetan (5.3, 5.4 eta 5.5) hobekuntza hauek ezartzea: auzialdian eta instrukzioan integratutako organoen hasiera-idazkien erregistroa, Puntu

Neutro Judizialaren Kontsultak, kide anitzeko organoen seinalatzeak, testualizazio-sistemaren ezarpena, estatistikak, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren modulua, doako justiziaren modulua, zigor-arloko betearazpenaren eta justizia errestitatiboaren modulua, gobernu-idazkaritzaren modulua, egoitza judizial elektronikoa, irudiak atestatu telematikoetan integratzeko gaitasuna, judizio azkarren agendak, ebazpenak Dokumentazio Judizialeko Zentrora igortzea.

2.6.- 2025. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Urteko hiru bertsioak ezartzea (5.6., 5.7 eta 5.8), hobekuntza hauek izango dituztenak: testualizazio-sistemaren garapena, estatistikak, gobernu-idazkaritzaren modulua Dekanotzaren testuingurua barne, doako justiziaren moduluaren ezarpena, prozedura judizial elektronikoen trukea kudeaketa prozesaleko sistemen artean, gutun ziurtatuen bidezko jakinarazpena.
- Irispide-puntu seguruak eta leku seguruak ezartzea, jarduketa judizial telematikoak Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientzia Digitaleko Neurrien Legean aurreikusitako baldintzetan egin ahal izateko (6/2023 Errege Lege Dekretuaren 59. artikulutik 66. artikulura).

2.7.- 2025. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

2025. urteari dagozkion espediente judizial elektronikoen urteko hiru bertsioak (5.6, 5.7 eta 5.8) ezartzea, baita Lehen Faseko Auzialdiko Auzitegiara egokitutako 6.0 bertsioari dagokiona ere.

- Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientzia Digitaleko Neurrien Legeak aurreikusitako baldintzetan jardun judizial telematikoak burutzea ahalbidetzen duten sarbide seguruak puntuak eta leku seguruak ezartzea.

2.8.- 2026. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENAK

- *Avantius sistema Auzialdiko Auzitegiak eratzeraz eta Fase guztietako Auzialdiko Auzitegi Bulego Judizialekara egokitzeaz lotutako 6.1, 6.2, 6.3 eta 6.4 bertsioak ezartzea.*
- *Avantius sisteman integratutako aplikazioen hobekuntzak ezartzea, honako gai hauetan: Justizia karpeta, Justizia Auzitegi Nagusiko Presidentetza Auzialdiko Auzitegiak modulua, Doako justizia modulua, Jabetza Erregistratzaileekiko integrazioa eta adimen artifizialak gidatutako tramitazioa.*
- *Ebazpenen txantiloak aldatzea, horiek epaileak edo magistratuak ematen dituela ager dadin.*

3.- JUSTIZIA, DESGAITASUNA DUTENENTZAKO ERE IRISGARRIA

3.1. 2021. URTEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN PLANTEAMENDUA

Justizia-sistamarako sarbidea lehentasunezko puntua da gure konstituzio-ereduan. Izan ere, botere publikoak behartzen ditu beharrezko diren baldintzak sortzera bai pertsonen bai haiek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen, haien osotasuna eragozten edo zailtzen duten oztopoak kenduta (EKren 9.2 artikulua). Esparru horretan kokatzen da Justizia desgaitasuna duten pertsonentzako ere irisgarria izatea. Desgaitasun-ordezkaritzak eskatuta, proposamena da aipatutako ordezkariarekin koordinatuta lan egitea hiru jarduera-ardatzetan:

- Antolamendu judizialeko kideei prestakuntza ematea, desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko Legean jasotako xedapenak behar bezala aplikatzeko, bai eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen tratamendurako ere, zibilaz bestelako ordena juridikoetan (ekainaren 2ko 8/2021 Legearen bigarren xedapen gehigarria). Helburu hori lortzeko, lan koordinatua egin behar da Prestakuntzako Batzordearen eta Desgaitasuneko Ordezkaritzaren artean.
- 8/2021 Legearen bosgarren xedapen iragankorra aplikatzearen eragina aztertzea desgaitasunaren arloan eskumena duten ordena zibileko epaitegien ebazmenari dagokionez (epaitegi espezializatuak dira Bilbon eta Donostian, eta, gainerako barruti judizialetan, epaitegi mistoetan edo lehen auzialdikoetan txertatuta daude). Izan

ere, lege horrek hura indarrean jarri aurretik hartutako neurri judizialak urtebeteko epean egokitu beharra aurreikusten du, alderdiak edo Ministerio Fiskalak hala eskatzen badu, eta hiru urteko epean, ofizioz.

- Dibertsitate funtzionalaren arloan eskumena duten epaitegi eta auzitegien lan egiten duten pertsonak sentsibilizatzea, desgaitasuna duten pertsonen eta sektore horretan lan egiten duten teknikariek eskaintako tailer espezifiko bidez.
- Egoitza Judizial Jasangarrien Planen 2024rako aurreikusitako seinaleztapen, komunikazio eta irisgarritasun fisikoko programak ezartzea.

3.2.- 2022. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko eskumen espezifikoak duten epaitegien egoera aztertzea, 8/2021 Legean aurreikusitako araubide iragankorrari aurre egiteko indargarri-proposamenekin.
- Desgaitasuna duten pertsonen bokalekin aztertzea irisgarritasun kognitiboa ahalbidetzen duten dokumentuak egiteko beharrak.
- Epaille eta magistratuentzako prestakuntza-jardura espezifikoak egitea 8/2021 Legeari dagokionez, prestakuntza deszentralizatuaren esparruan.

3.3.- 2023. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Desgaitasuna duten pertsonak justiziara sartzeko programa egitea, 2024 eta 2026 bitartean gauzatzeko.
- Notariotzaren Kontseilu Nagusiko Aequitas Fundazioarekin eta Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestuarekin parte hartzea, desgaitasuna duten pertsonekin egiten diren jarduketak koordinatzeko.
- Desgaitasuna duten organo judizialen egoeraren aldizkako azterketa, 8/2021 Legean aurreikusitako berrikuspen-neurriak hartzeko.

3.4.- 2024. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Desgaitasuna duten pertsonak justiziara iristeko planean 2024rako aurreikusitako neurriak betetzea.
- Desgaitasunaren alorreko eskumena duten epaitegien egoeraren jarraipena egitea, laguntza-neurrien berrikuspenari dagokionez (8/2021 Legean aurreikusitako araubide iragankorraren arabera).
- Aequitas Fundazioak sortutako lankidetzat-taldean parte hartzea.
- Gorren Elkarteen Euskal Federazioarekin lankidetzan aritzea, legegaxedapenak betetzea ahalbidetuko duten bideratzaileen panel bat sortzeko, harik eta, desgaitasuna duten pertsonak justiziara iristeko plana garatuz, bideratzaileen panel publiko bat sortu arte.

3.5.- 2024. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Desgaitasuna duten pertsonak justiziara iristeko planean 2024rako aurretiazko neurriak betetzea.
- Desgaitasunaren alorreko eskumena duten epaitegien egoeraren jarraipena egitea, laguntza-neurrien berrikuspenari dagokionez (8/2021 Legean aurreikusitako araubide iragankorraren arabera).
- Aequitas Fundazioak sortutako lankidetzat-taldean parte hartzea.

3.6.- 2025. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Desgaitasuna duten pertsonak justiziara iristeko planean 2025erako aurreikusitako neurriak betetzea. Zehazki, 3. ildo estrategikoa (Prozeduretarako sarbidea) eta 4. ildo estrategikoa (Ezagutza) garatzea, Barakaldon garatuko den proiektu pilotu baten bidez. Proiektu horren helburua da desgaitasun kognitiboa duten pertsonak eta adinekoak (Prozedura Zibilaren Legearen 7 bis artikulua eskaintako legezko definizioaren arabera) justiziarako duten sarbidea hobetzea, informazio-estrategien bidez, zeinek aukera emango baitute prozeduraren egintzak modu ulergarrian komunikatzeko, bai eta deribaziorako ere, Abokatutzaren Elkargo Profesionalekiko lankidetzat-esparru batean, baldin eta orientazio juridikoa behar bada, prozedura judizialen ezaugarriak eta betekizunei buruzko oinarritzko informazioa gaintzen duena. Hori guztia, bat etorrita Defentsa Eskubidearen azaroaren 11ko 5/2024 Lege Organikoan xedatutakoarekin.

- Aequitas Fundazioak sortutako lankidetza-taldean parte hartzea.
- Elkarrekin batera, formulak bilatzea, lege-xedapenak betetzea ahalbidetuko duten bideratzaileen panel bat sortzeko, harik eta, desgaitasuna duten pertsonak justiziara iristeko plana garatuz, bideratzaileen panel publiko bat sortu arte.

3.7.- 2025. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Desgaitasuna duten pertsonak justiziara iristeko planean 2025erako aurreikusitako neurriak betetzea. Zehazki, 3. eta 4. lerro estrategikoak garatzea (Prozeduretarako sarbidea eta Ezagutza, hurrenez hurren). Horietan oinarrituta, honako dokumentu hauek idatzi dira: Ahozko hizkera juridikoaren gida eta Idatzizko hizkera juridikoaren gida.
- Aequitas Fundazioak sortutako lankidetza-taldean parte hartzea.
- Desgaitasun kognitiboa duten pertsonentzako irakurketa errazeko dokumentuak egiteko proiektua idazten hasia.
- Elkarrekin batera, formulak bilatzen hasia, lege-xedapenak betetzea ahalbidetuko duten bideratzaileen panel bat sortzeko, harik eta, desgaitasuna duten pertsonak justiziara iristeko plana garatuz, bideratzaileen panel publiko bat sortu arte.

3.8.- 2026. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- *Aequitas Fundazioak sortutako lankidetza-taldean parte hartzea.*
- *Desgaitasun kognitiboa duten pertsonentzako irakurketa errazeko dokumentuak egiteko proiektua idaztea.*
- *Elkarrekin batera, formulak bilatzea, lege-xedapenak betetzea ahalbidetuko duten bideratzaileen panel bat sortzeko, harik eta, desgaitasuna duten pertsonak justiziara iristeko plana garatuz, bideratzaileen panel publiko bat sortu arte.*
- *Desgaitasuna duten pertsonak Justiziara sartzeko Plan estrategikoan aurreikusitako neurriak betetzea sustatzea, irisgarritasun fisikoa, kognitiboa eta digitala bermatzeko, gainerako pertsonen berdintasun-baldintzetan.*
- *Justizia-sistema instituzionaleko kideen artean sentsibilizazio-estrategiak dinamizatzea, desgaitasuna duten pertsonen jarrera-eta komunikazio-oztopoak ezabatzea.*

4.- JUSTIZIA, GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMAK BABESTEKOA

4.1.- 2021. URTEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN PLANTEAMENDUA

Justizia-sistemaren zeregin nagusia pertsonen eskubide eta interes legitimoak babestea da (EKren 24.1 artikulua). Maila horretan kokatzen da genero-indarkeriaren biktimak zaintzea. Asmoa da jarraipena ematea hautatutako gai batzuetan hasitako jarduera-ildoei, abiapuntutzat hartuta biktimen ustez sistema judizialak ase behar dituen beharrezaneiei buruz egindako azterlan enpirikoak. Zehatzago esanda:

- Eskubideei eta prozesuaren ibilbideari buruzko informazio-gidak Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoetara zabaltzea, aipatutako dokumentuek lortu nahi diren helburuak bete ahal izan ditzaten Autonomia Erkidego osoan.
- Genero-indarkeriaren biktimei lagun egiteko politika dinamizatzea prozeduran zehar, Zurekin programa finkatuz eta programa hori udaletako eta foru-aldundietako gizarte-zerbitzuetan dauden lagun egiteko programekin uztartuz, ahal dela.
- Birbiktimizazio-arriskuaren koordinazio- eta kudeaketa-protokoloa, Segurtasun Sailak egina, organo judizialen beharrekin lotzea, biktimen babes-aginduak ebazterakoan.

- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegieta instalazioak arian-arian egokitzeko laguntza ematen jarraitzea, kontuan hartuta Biktimaren Estatutuaren exigentziak eta genero-indarkeriaren biktimen osoko babesaren gaineko legedi berezia.

4.2.- 2022. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Akordioa Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako Sailarekin, genero-indarkeriaren biktimei buruzko informazio-gidak Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzeko. Gauzatzeke dago.
- Autonomia Erkidego osoko Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiak (Bilbo izan ezik) Delituaren Biktimen Estatutuaren arloan indarrean dagoen araudiaren eskakizunetara egokitzea.
- Erakundeen lagun egiteko politika indartzea (Zurekin), 2022ko aurrekontuetan finantzaketa publiko egokia emanez.

4.3.- 2023. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Bilboko Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegia moldatzea, Biktimaren Estatutuan jasotako eskakizunetara egokitzeko.
- Genero-indarkeriaren biktimei buruzko informazio-gidak Autonomia Erkidego osora banatzeko konpromisoa gauzatzea.

- Osoko Balorazio Forentseko Unitateetan integratutako Talde Teknikoak indartzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak lurraldez lurralde egokitze 2019an egindako proposamena aztertzea.
- Gobernu Salak laguntza instituzionala ematea Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako emakumeen aurkako indarkeriaren batzordeei, batzordeari bileren aktak aurkeztuz, eta haien presidentek Osoko Bilkurarako interesgarritzat jotzen dituzten gai espezifikoak aztertzea.
- Zurekin programaren jarraipena egitea, Biktimei Laguntzeko Zerbitzuan sartu ondoren, eta programa foru- edo udal-mailako gizarte-zerbitzuek biktimei laguntzeko diseinatutako programekin nola artikulatzen den aztertzea.

4.4.- 2024. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Zurekin programa birdimentsionatzea, Biktimei Laguntzeko Zerbitzuan sartu ondoren.
- Viogen Dos eta Eba sistemen arteko elkarreragingarritasuna taxutzea, indarkeria matxistaren biktimak ahalik eta gehien babesteko.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eskumena duten lehen auzialdiko eta instrukzioko bi epaitegiren barruti judizialak elkartzearen bideragarritasuna aztertzea.

4.5.- 2024. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Viogen Dos eta Eba sistemen arteko elkarreragingarritasuna taxutzea, 2024ko azaroan gertaturiko indarkeria matxistaren biktimak ahalik eta gehien babesteko.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiako bosgarren solairuko bulegoetara sartzeko protokolo bat egitea, biktimatzat hartutako ondoan dauden eta bertara sartzen diren pertsonak identifikatzeko bide emango duena, haientzako segurtasun-espazio bat ahalbidetzeko.

4.6.- 2025. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Sexu-delituen instrukzioa bereganatzeak dakarren eskumen-gehikuntzatik abiatuta, barruti judizial batean edo probintzia bereko edo probintzia mugakideetako barruti judizial batzuetan jurisdikzioa izateko Euskal Autonomia Erkidegoan sortu beharko diren emakumeen aurkako indarkeriaren atalen azterketa eta proposamena, BJLOren 84.5 eta 89.3 artikuluetan jasotzen den bezala. Horretarako, Instrukzio Atalen edo Atal Bakarren eta Emakumearen aurkako Indarkeriaren Atalen lan-kargak definitu behar dira, lehenengoetatik bigarrenetara eramaten den lan-karga definitzeko eta eskumenak behar bezala banatzeko bederatzi hilabeteko epean, Justiziaren Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren arloko Neuriei buruzko Lege Organikoa indarrean jartzen denetik aurrera (2025eko urriaren 5a). Orduan, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko egungo epaitegiek

beren gain hartuko dute sexu-indarkeriaren arloko eskumena (Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren arloko neurriei buruzko Lege Organikoaren laugarren xedapen iragankorra), baita Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Atalak auzialdi-auzitegietan eratu aurretik ere (urte bereko abenduaren 31n eratuko dira) (Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren arloko neurriei buruzko Legearen azken xedapenetako hogeita hemezortzigarrena, 3).

- Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Ataletako bulegoak kide kopuruaren ondoriozko eskakizunetara egokitzea.
- Zurekin programa ezartzea, biktimei lagun egiteko zerbitzu espezifiko gisa.
- Genero-indarkeriaren biktimek salaketaren unean dituzten eskubideei buruzko informazio-gida egitea.
- Gobernu Salaren eztabaidarako sartzeari lurralde historiko bakoitzeko emakumeen aurkako indarkeriaren batzordeetan adostu daitezkeen proposamenak, gobernu-izaera dutenak edo beste erakunde publiko batzuekin elkarlanean aritzeko proposamen bat osatzen dutenak.

4.7.- 2025. URTEAN EGINDAKOAREN EGIKARITZEA

- Instrukzio Atalen edo Atal Bakarren eta Emakumearen aurkako Indarkeriaren Atalen lan-kargak definitzea, lehenengoetatik bigarrenetara eramaten den lan-karga definitzeko eta eskumenak behar bezala banatzeko bederatzi hilabeteko epean, Justiziaren

Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren arloko Neurriei buruzko Lege Organikoa indarrean jartzen denetik aurrera (2025eko urriaren 5a). Orduan, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko egungo epaitegiek beren gain hartuko dute sexu-indarkeriaren arloko eskumena (Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren arloko neurriei buruzko Lege Organikoaren laugarren xedapen iragankorra), baita Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Atalak auzialdi-auzitegietan eratu aurretik ere (urte bereko abenduaren 31n eratuko dira) (Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren arloko neurriei buruzko Legearen azken xedapenetako hogeita hemezortzigarrena, 3).

- Autonomia Erkidegoko alderdi judizialak elkartzeko proposamena idaztea, lehendik dauden Emakumearen Aurkako Indarkeriaren ataletan sartzeko, 2025eko urriko, azaroko eta abenduko osoko bilkuretan eztabaidatutakoaren arabera.
- Zurekin programa ezartzea, biktimei lagun egiteko zerbitzu espezifiko gisa.
- Gobernu Salaren eztabaidarako sartzeari lurralde historiko bakoitzeko emakumeen aurkako indarkeriaren batzordeetan adostu daitezkeen proposamenak, gobernu-izaera dutenak edo beste erakunde publiko batzuekin elkarlanean aritzeko proposamen bat osatzen dutenak.

4.8. 2026. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- *Autonomia Erkidegoko alderdi judizialak elkartzeko proposamena idaztea, Autonomia Erkidegoan sortu beharko diren Emakumearen Aurkako Indarkeriaren ataletan sartzeko, genero-indarkeriaren biktimei emandako arretan, laguntzan, babesean eta bide-laguntzan espezializazioa ahalbidetze aldera.*
- *Emakumearen Aurkako Indarkeriaren ataletako dependentziak horiek osatzen dituzten epaile-plazen kopurutik eratorritako eskakizunetara egokitzea.*
- *Genero-indarkeriaren biktimek salaketaren unean dituzten eskubideei buruzko informazio-gida egitea.*
- *Gobernu Salaren eztabaidarako sartzea lurralde historiko bakoitzeko emakumeen aurkako indarkeriaren batzordeetan adostu daitezkeen proposamenak, gobernu-izaera dutenak edo beste erakunde publiko batzuekin elkarlanean aritzeko proposamen bat osatzen dutenak.*
- *Biktimei, eta, batez ere, genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimei, bide-laguntza emateko programak indartzea.*

5.- JUSTIZIA, ERRESTAURAZIOA ETA BITARTEKARITZA AINTZAT HARTZEN DITUENA

5.1.- 2021. URTEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN PLANTEAMENDUA

Gobernu Salak apustu garbia egin izan du, eta egiten ari da, aurkakotasunean oinarritutako justizia-ereduen osagarrien alde. Eredu horiek aukera emango dute babes juridikoaren eskaeren oinarrian dauden gatazkak konpontzeko, tartean dauden pertsonen entzute eta arreta beharretatik abiatuta. Gai honetan, bidezko da:

- Ebaluazioa egitea 2020an onartutako justizia errestitutiboaren protokoloaren aplikazioari.
- Familia-bitartekaritzaren bilakaera aztertzea.
- Ordena zibilean bitartekaritza handitzeko erabaki irmoa hartzea.

5.2. 2022. URTEAN GAUZATUTAKO JARDUERAREN DESKRIBAPENA

- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 2022-2025erako onartutako estrategia errestitutiboaren diseinuan lagundu da.
- Prestakuntza-tailerrak egin dira Barakaldon, Bilbon, Donostian eta Gasteizen.

5.3.- 2023. URTEAN GAUZATUTAKO JARDUERAREN DESKRIBAPENA

- Gernikako, Bilboko, Gasteizko eta Donostiako barruti judizialako epaileei, magistratuei, fiskalei, Justizia Administrazioako letraduei eta Justizia Administrazioako langileei zuzendutako prestakuntza-tailerrak egitea.
- Justizia errestituratioari buruzko mintegi bat egitea prestakuntza-jarduera desentralizatuan.
- Bilboko Zigor arloko 7 zenbakiko Epaitegian zigor-arloko betearazpenean deribazio-proiektu pilotu bat hastea.
- Justizia Errestituratioari buruzko Foroan parte hartzea, Justizia Errestituratioaren Estrategiaren barruan

5.4.- 2024. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Irungo eta Getxoko barruti judizialetan prestakuntza-tailer osagarriak egitea epaileentzat, magistratuentzat, fiskalentzat, Justizia Administrazioako letraduentzat eta Justizia Administrazioako langileentzat.
- Justizia Errestituratioaren Foroan parte hartzea, Justizia Errestituratioaren Estrategiaren barruan.
- Arlo zibilean bitartekaritza ezartzea, Efizientzia Prozesaleko Neurriei buruzko Lege Organikoaren proiektuan jasotako neurrietan xedatutakoarekin bat etorritz.

5.5.- 2024. URTEAN GAUZATUTAKO JARDUERAREN DESKRIBAPENA

- Justizia Errestituratioaren Foroan parte hartzea, Justizia Errestituratioaren Estrategiaren barruan. Haren barruan, dokumentu hauek onartu dira: estandarrak eta balioak; bideratzaileak eta justizia errestituratioaren mapa Euskadin.

5.6.- 2025. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Prestakuntza-tailer osagarriak egitea Euskadiko barruti judizialako epaileentzat, magistratuentzat, fiskalentzat, Justizia Administrazioako letraduentzat eta Justizia Administrazioako langileentzat, rol prozesalak aztertzeo deribazio-prozesuan eta prozeduran sartzeko prozesuan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak egindako gidan eta Prozedura Kriminalaren Legearen xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraikiz (Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientzia Prozesalaren arloko neurriei buruzko Lege Organikoak sartua).
- Bitartekaritza edo gatazkak ebazteko beste bitarteko egoki batzuk ezartzea, ordena zibilean aplikatzekoa den guztian, Justiziaren Zerbitzu Publikoaren Efizientzia Prozesalaren arloko Neurriei buruzko Lege Organikoan jasotako neurrietan xedatutakoarekin bat etorritz (2. artikulutik 19. artikulura eta, bereziki, hirugarren xedapen gehigarrian).

5.7.- 2025. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Prestakuntza-tailer osagarriak egitea Euskadiko barruti judizialtako epaileentzat, magistratuentzat, fiskalentzat, Justizia Administrazioako letraduentzat eta Justizia Administrazioako langileentzat, rol prozesalak aztertzeke deribazio-prozesuan eta prozeduran sartzeko prozesuan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak egindako gidan eta Prozedura Kriminalaren Legearen xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraikiz (Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientzia Prozesalaren arloko neurriei buruzko Lege Organikoak sartua).

5.8.- 2026. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- *Justizia leheneratzeko prozesuko rol prozesalean prestakuntza espezifiko ematea, Prozedura Kriminalaren Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren arabera.*
- *Erakundeen arteko lankidetzaren iragarritako Justizia leheneratuari buruzko autonomia-legea onartzetik erator litezkeen gobernu-dinamiketan.*
- *Bitartekaritza zigor-arlokoak eta familia-arlokoak ez diren beste jurisdikzio-ordena batzuetara zabaltzeko bideragarritasuna analizatzea.*

6.- JUSTIZIA ABEGITSUA HAUR ETA NERABEENTZAT

6.1.- 2021. URTEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN PLANTEAMENDUA

Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarenak, erronka nabarmenak dakartzkio sistema judizialari, jurisdikzioaren eta gobernu-kudeaketaren arloan. Gobernu-kudeaketaren esparrura mugatuta, oso garrantzitsua da lege horren aurreikuspen hauek edukiz betetzea:

- Beharrezkoak diren protokoloak ezartzea haurrentzako ingurune seguruak, tratu onekoak eta inklusiboak sortzeko (3 m, eta 12.4 artikulua), biktimizazio sekundariotik babestuta (4 e eta 12.3 artikulua);
- Sistema publikoen arteko lankidetzaren mekanismoak sortzea jardunbide egokiak sortzeko (6. artikulua) eta lagun egiteko (12 h artikulua) sortzeko.

Aurreikuspen horiek garatuz, eta gogoan hartuta Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorra, EAEn haur eta nerabeen kontrako abusu eta sexu-esplotazio kasuetan jarduteko jarraibideei buruzkoa, Gobernu Salaren Osoko Bilkurak, 2021eko maiatzaren 21eko bilkuran, jarraibide horiek jardunbide prozesal egokituz onartu zituen, eta, BJLOren 161. artikuluan ezarritako bidetik, jarraibide horiek banatu zituen EAEn jurisdikzioa egikaritzen duten epaile eta magistratuen artean. Horraino iritsita, helburua da zeregin hori prestakuntza bereziko ekintzekin osatzea, prestakuntza deszentralizatuko planaren barruan, sistema

judizialaren eta hezkuntza, osasun eta gizarte-zerbitzuen sistemen arteko lankidetzaren eta koordinazio-tresnak ezagutzeko, bereziki. *Save the Children* erakundeak babestutako Barnahus –Haurren etxea– proiektuarekin ere lankidetzan aritu beharko da. Proiektu horren helburua da espazio lagunkoi bat sortzea sexu-abusuen biktima diren haurrei arreta emateko, batez ere. Proiektu horretan, hainbat profesionalen arreta integrala eta diziplina anitzekoa emateaz gain, beharrezko diren baldintzak sortu nahi dira aldeztatik eratutako proba egiteko prozesu penalean.

6.2.- 2022. URTEAN GAUZATUTAKO JARDUERAREN DESKRIBAPENA

- Haurren proposamena gauzatzeko jardunbide egokien gida bat onartzea, 8/2021 Lege Organikoan jasotako aurreikuspenen arabera.
- Barnahus programaren Plan Pilotua egiten ari den diziplinarteko lantaldean lankidetzan aritzea. Aurreikuspenen arabera, 2023an ezarriko da Araban.
- 8/2021 Lege Organikoari buruzko prestakuntza-jarduera espezifiko bat egitea prestakuntza deszentralizatuaren barruan.

6.3. 2022. URTEAN GAUZATUTAKO JARDUERAREN DESKRIBAPENA

- Talde Psikosozial Judizialak indartzea, aldeztatik eratutako frogak gauzatzeko, eta epaile eta auzitegiek eskatutako irizpenak eta peritutzostenak egitea, adingabeak dituzten prozesuetan.
- Epaile eta magistratuen prestakuntza espezifikoak, prestakuntza-plan deszentralizatuaren barruan.

6.4.- 2024. URTERAKO JARDUERA-PROPOSAMENA

- Talde Psikosozial Judizialak indartzea, aldeztatik eratutako frogak gauzatzeko, eta epaile eta auzitegiek eskatutako irizpenak eta peritutzostenak egitea, adingabeak dituzten prozesuetan.
- Epaile eta magistratuen prestakuntza espezifikoak, prestakuntza-plan deszentralizatuaren barruan.
- Barnahus programaren Plan Pilotua ezartzea Araban, talde teknikoak lana amaitu ondoren, haurren eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriari aurre egiteko arreta integral eta espezializatuaren ereduaren jarduketaren jarraibideei buruzkoa.

6.5.- 2024. URTEAN GAUZATUTAKO JARDUERAREN DESKRIBAPENA

- Talde Psikosozial Judizialak indartzea, aldez aurretik eratutako froga gauzatzeko, eta epaile eta auzitegiek eskatutako irizpenak eta perituxostenak egitea, adingabeak dituzten prozesuetan.
- Epaileen prestakuntza espezifikoa, prestakuntza-plan deszentralizatuaren barruan.

6.6.- 2025. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Epaile eta magistratuen prestakuntza espezifikoa, prestakuntza-plan deszentralizatuaren barruan.
- Barnahus programa ezartzea Euskal Autonomia Erkidego osoan, sexu-erasoaren biktima diren haur eta nerabeen kasuan aurrez eratutako proba eskuratzeko, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan eta Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Lege autonomikoan xedatutakoa aplikatuz.
- Barruti judizial batean edo probintzia bereko edo probintzia mugakideetako barruti judizial batzuetan jurisdikzioa izateko Euskal Autonomia Erkidegoan sortu beharko diren Haur eta Nerabeenganako Indarkeriaren Atalen azterketa eta proposamena, BJLOren 84.5 eta 89 artikuluetan jasotakoaren ildotik.

6.7.- 2025. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Epaile eta magistratuen prestakuntza espezifikoa, prestakuntza-plan deszentralizatuaren barruan.

6.8. 2026. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- *Gobernu Salak, prozesu-jardunbide egoki gisa, Barnahus errekurtsuan aurrez eratutako haurren proba egiteko jarduketa judizialerako jarraibideak onartzea. Jarraibide horiek lantaldeak egindako jarduera koordinatuaren agirian sartuta daude, eta Sara Mallen Basterra eta Eneida Arbaizar magistratuek parte hartu dute, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakaritzak eskuordetuta.*
- *Barnahus programa ezartzea Euskal Autonomia Erkidego osoan, sexu-erasoaren biktima diren haur eta nerabeen kasuan aurrez eratutako proba eskuratzeko, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan eta Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Lege autonomikoan xedatutakoa aplikatuz.*
- *Barruti judizial batean edo probintzia bereko edo probintzia mugakideetako barruti judizial batzuetan jurisdikzioa izateko Euskal Autonomia Erkidegoan sortu beharko diren Haur eta Nerabeenganako Indarkeriaren Atalen azterketa eta proposamena, BJLOren 84.5 eta 89 artikuluetan jasotakoaren ildotik.*

- *Epaitegietakoko Talde Psikosoziala indartzeko neurriak hartzeko proposamena, adingabeen interes gorenaren aldeko erabaki judizialak hartzeko beharrezkoak diren txostenak arrazoizko epe batean idatzi daitezten.*
- *Epaitegietakoko dependentzietan froga aintzatetsia egiteko Epaitegietakoko Talde Psikosozialak erabiltzen dituen areto espezifikoetako grabazioaren kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko proposamena.*

7.- JUSTIZIA: HEZKUNTZA- ETA UNIBERTSITATE-SEKTOREAREKIN KONEKTATUA

7.1.- 2021. URTEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN PLANTEAMENDUA

Hainbat helburu lortu nahi dira puntu honetan.

Lehenengoa, epaileentzako prestakuntza-programa deszentralizatua egiten laguntzea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak sinatutako hitzarmenaren esparruan. Helburua da jurisdikzio-ordena bakoitzean interesgarriak diren gaiet buruz eta jurisdikzio-ordena guztiekin zerikusia duten gaiet buruz hausnartzeko aukera ematea.

Bigarrenkoa, jarraipena ematea epaitegi eta auzitegietakoko kanpoko praktikei, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Justizia Ministerioak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustukoak sinatutako hitzarmenen esparruan.

Hartara, lankidetzan ariko dira legelariak prestatzen, haietako asko izango dira-eta Justizia Administrazioako epaile, fiskal eta letradu etorkizunean. Era berean, elkarlan-jarraibideak ezarri dira interes orokorreko jardunaldietan.

Hirugarren helburua da “Justizian Heztea” programa garatzen jarraitzea. Programa hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Komunikazio Bulegotik sustatu dute, eta honako hauek ditu helburu, besteak beste: oinarritzko ezagutza justizia-sistemaren funtzionamenduari buruz –bai epaiketaren bidez, bai bitartekaritzaren bidez– eta profesionalek (epaileak, fiskalak, administrazioaren letraduak, prokuradoreak, gizarte-gradualak, auzitegi-medikuak) eta herritarrek (lekukoak, epaimahaikideak) dituzten rol prozesalei buruz, bai eta gizarte-ikuspegitik sentikorrak diren alderdien tratamendua ere, besteak beste genero-indarkeria, familia barruko indarkeria, hezkuntzaren alorreko jazarpena –zibernetikoari aipamen berezia eginda–, intimitatearen kontrako delituak (sare sozialekin lotuta), sexu-delituak, kontsumo etilikoarekin edo sustantzia toxikoen kontsumoarekin lotutako delituak.

7.2.- 2022. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- 2022rako Prestakuntza Deszentralizatua diseinatzeko laguntzea. Horri esker, ikastaro hauek burutu dira: 8/2021 Lege Organikoak (haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babestekoak) sartutako berrikuntza nagusiak. Zigor arloa (2022ko 20 eta 21a); Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzea. 8/2021 Legea, ekainaren 2koa (2022ko urriaren 27 eta 28a); Zigor Zuzenbideari buruzko XVII. Jardunaldiak, José María Lidón jaunaren omenez (2022ko azaroaren 10 eta 11).

- Praktika Judizialarekin jarraitzea Euskal Herriko eta Deustuko unibertsitateekin, Zuzenbideko eta Kriminologiako Gradua ikasten ari direnentzat.
- Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako sailekin akordioa egitea, 2023an “Justizian Heztea” Programa garatzeko.

7.3.- 2023. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- 2023. urterako Prestakuntza Deszentralizatua diseinatzeko laguntzea, arlo juridikozional guztietan berariazko prestakuntza-jarduera bat ahalbidetzeko.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzak akordioa sinatzea, Justizian Heztea programa ezartzeko.
- Justizian Heztea programa burutzea 2022-2023 ikasturterako.
- Justizian Heztea programa egitea eta betetzen hastea, 2023-2024 ikasturterako.
- Lankidetzak-hitzairekin sinatu da EHUarekin, Zuzenbideko eta Kriminologiako Graduaren Practicum egiteko, interes orokorreko jardunaldiak egiteko eta interes judizialeko gaiei buruzko ikerketaren arloan lankidetzan jarduteko.

- Bi jardunaldi egin dira, bata araudi berriaren arabeko sexu-delituei buruzkoa eta bestea heriotzagatikiko doluan eta beste egoera traumatikoan daudenei laguntzeari buruzkoa.
- Zuzenbideko eta Kriminologiako Graduaren Practicumaren programa egin eta onartzea 2023-2024 ikasturterako.

7.4.- 2024. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- 2024ko karrera judizialeko prestakuntza-programa deszentralizatua egiten laguntzea.
- Berariazko hitzairekin bidez elkarrekin aritzea Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako Saila, Deustuko Unibertsitatea eta, hala badagokio, Arartekoa, osé María Lidón Ikastaroa antolatzeke, ikastaroaren ezarpenarekin diseinatutako helburuak betetzeko aldera.
- Osasun mentalaren arloko prestakuntza-jarduera espezifiko bat egitea Arrasateko Aita Manni Zentroarekin.
- Justizian Heztea programaren jarraipena egin, 2023-2024 ikasturteari dagokiona, eta 2024-2025 ikasturteari dagokiona prestatzea.
- EHUko Zuzenbideko eta Kriminologiako Graduaren 2023-2024 ikasturteko practicum egitea eta 2024-2025 ikasturteari dagokiona prestatzea.

- Lankidetza-hitzarmena sinatzea Deustuko Unibertsitatearekin, Zuzenbideko Graduen Practicuma egiteko, interes orokorreko jardunaldiak egiteko eta interes judizialeko gaiei buruzko ikerketaren arloko koordinazioa egiteko.

7.5.- 2024. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- 2024ko karrera judizialeko prestakuntza-programa deszentralizatua egiten laguntzea.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak (gaur egungo Justizia eta Giza Eskubideen Saila) hitzarmena egitea José María Lidón Foroa eratzeke. Hitzarmen horren bidez, lau urteko programazioa egin daiteke José María Lidónen memoriari buruzko prestakuntza-jarduerak egiteko. Haren babesean, «Pribatutasuna eta sare sozialak adingabeen artean» jarduera egin zen 2024ko azaroaren 7an eta 8an.
- "Justizia terapeutikoa eta osasun mentala" prestakuntza-jarduera egitea Arrasateko Aita Menni zentroan, 2024ko ekainaren 6an.
- Justizian Heztea programa gauzatzea, 2023-2024 ikasturteari dagokiona, eta 2024-2025 ikasturteari dagokiona abiaraztea.
- EHUko Zuzenbideko eta Kriminologiako Graduan 2023-2024 ikasturteko practicuma egitea eta 2024-2025 ikasturteari dagokiona prestatzea.
- Transexualitateari buruzko Legearen gaineko jardunaldia egitea.

7.6.- 2025. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- 2025eko karrera judizialeko prestakuntza-programa deszentralizatua egiten laguntzea.
- Karrera judizialeko prestakuntza deszentralizaturako urte anitzeko hitzarmen bat sinatzeko proposamena, urteko programak azkar kudeatu ahal izateko, eta prestakuntza hori erkidego mugakideetako epaileei, ordezeko epaileei eta beste eragile juridiko batzuei zabaltzea.
- Ordezko epaileentzako prestakuntza espezifikoa, hasierakoa zein jarraitua, Gobernu Salaren 2023ko urriaren 27ko Osoko Bilkuraren erabakian (hasierako prestakuntzari dagokionez) eta Justiziaren Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren arloko Neurriei buruzko 1/2025 Lege Organikoaren seigarren xedapen gehigarrian eta Osoko Bilkuraren akordio horretan (etengabeko prestakuntzari dagokionez) xedatutakoaren arabera.
- Lankidetza-hitzarmena sinatzea Deustuko Unibertsitatearekin, Zuzenbideko Graduen Practicuma egiteko, interes orokorreko jardunaldiak egiteko eta interes judizialeko gaiei buruzko ikerketaren arloko koordinazioa egiteko.
- Justizian Heztea programa gauzatzea, 2024-2025 ikasturteari dagokiona, eta 2025-2026 ikasturteari dagokiona abiaraztea.

- EHUko Zuzenbideko eta Kriminologiako Graduan 2024-2025 ikasturteko practicuma egitea eta 2025-2026 ikasturteari dagokiona prestatzea.

7.7.- 2025. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- 2025eko karrera judizialeko prestakuntza-programa deszentralizatua egiten laguntzea.
- Karrera Judizialaren prestakuntza deszentralizaturako urte anitzeko hitzarmen bat sinatzea, urteko programen kudeaketa azkarra ahalbidetuko duena.
- Justizian Heztega programa gauzatzea, 2025 ikasturteari dagokiona, eta 2025-2026 ikasturteari dagokiona abiaraztea.
- EHUko Zuzenbideko eta Kriminologiako Graduan 2024-2025 ikasturteko practicuma egitea eta 2025-2026 ikasturteari dagokiona prestatzea.

7.8.- 2026. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- *2026ko karrera judizialeko prestakuntza-programa deszentralizatua egiten laguntzea.*

- *Trebakuntza deszentralizatua muga kide diren erkidegoetako epaileei, ordezkari diren epaileei eta beste operadore juridiko batzuei zabaltzeko proposamena.*
- *Ordezko epaileentzako prestakuntza espezifiko, hasierakoa zein jarraitua, Gobernu Salaren 2023ko urriaren 27ko Osoko Bilkuraren erabakian (hasierako prestakuntzari dagokionez) eta Justiziaren Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren arloko Neurriei buruzko 1/2025 Lege Organikoaren seigarren xedapen gehigarrian eta Osoko Bilkuraren akordio horretan (etengabeko prestakuntzari dagokionez) xedatutakoaren arabera.*
- *Justizian Heztega programa gauzatzea, 2025-2026 ikasturteari dagokiona, eta 2026-2027 ikasturteari dagokiona abiaraztea.*
- *EHUko Zuzenbideko eta Kriminologiako Graduan 2025-2026 ikasturteko practicuma egitea eta 2026-2027 ikasturteari dagokiona prestatzea.*

8.- JUSTIZIA, ZERBITZU PUBLIKOA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAREKIN EMATEN DUENA

8.1.- 2021. URTEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN PLANTEAMENDUA

Gobernu-salaren zereginetako bat da laguntza ematea, bere eskumenen esparruan, jarduera jurisdikzionala bateragarria izan dadin lan-osasunaren eskakizunekin, laneko arriskuen aurreko babesa gauzatuz

(2/2011 Erregelamenduaren 317.1 artikulua eta LAPLren 14.1 artikulua).

8.2.- 2022. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- COVID-19a hedatzeko arriskua geldiarazteko aurreikusitako neurriak hartzea.

8.3.- 2023. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Egoitza judizial jasagarrien plana diseinatzen laguntzea, efizientzia energetikoa eta beharrian funtzionalak asetzeaz gain, arreta berezia eman dakion laneko arriskuen prebentzioaren arloko eskakizunak betetzeari.

8.4.- 2024. URTERAKO JARDUERA-PROPOSAMENA

- Gobernu-neurri zehatzak hartzeko jarduera-protokolo bat prestatzea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak lanpostu jurisdikzional bat osasun-arrazoiengatik egokitzea erabakitzen duenean.
- Prozedura judizial digitala ezartzearen ondoriozko arriskuen aurrean berriazko babes-neurriak jartzeko eskatzea, arrisku psikosozialei buruz lortzen den informaziotik abiatuta.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko koordinazioa sustatzea Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Berdintasun, Justizia

eta Gizarte Politiketako Sailaren artean, LAPLren 24. artikuluan aurreikusitakoaren babesean. Laneko arriskuen arloan prebentzio-neurri espezifikoak ezartzea izango litzateke helburua, bai eta batera jarduteko prozesu bat antolatzea ere erreakzioaren eremuan.

8.5.- 2024. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Dekanoen Taldean laneko arriskuen prebentzioaren arloko koordinazio-proposamenaren dokumentu bat aztertzea, Gobernu Salaren Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta, ondoren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira bidaltzeko.

8.6.- 2025. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Gobernu-neurri zehatzak hartzeko jarduera-protokolo bat prestatzea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak lanpostu jurisdikzional bat osasun-arrazoiengatik egokitzea erabakitzen duenean.
- Prozedura judizial digitala ezartzearen ondoriozko arriskuen aurrean berriazko babes-neurriak jartzeko eskatzea, arrisku psikosozialei buruz lortzen den informaziotik abiatuta.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko koordinazioa sustatzea Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren artean, LAPLren 24. artikuluan aurreikusitakoaren babesean. Laneko arriskuen arloan prebentzio-neurri espezifikoak ezartzea izango litzateke helburua, bai eta batera jarduteko prozesu bat antolatzea ere erreakzioaren eremuan.

- Karrera Judizialeko kideei (bereziki Guardia-zerbitzuetan daudenei) Larrialdietako Sare Judizialaren berri ematea. Sare hori Sara Carrión eta Eva Cerrón magistratuek osatzen dute, eta haren funtzioa da laguntza teknikoa ematea hala eskatzen duten gobernu- eta jurisdikzio-organoei, eta, batez ere, larrialdi- eta katastrofe-egoeretan esku hartu behar duen guardiako funtzioetan ari den epaileari.
- Larrialdiak eta Hondamendiak Kudeatzeko Adituen Sare Judiziala osatzen duten magistratuak Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren eta Larrialdien egituraren sar daitezen ahalbidetzea. Sare Judizialaren helburuetako bat da ziurtatzea koordinazio egokia izango dela jarduketa judizialaren eta administrazio-agintaritzaren eskudunei dagokienaren artean, aktibatzen den Babes Zibileko Planaren antolamendu-egituraren integratuz, hala dagokionean.

8.7. 2025. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Gobernu-neurri zehatzak hartzeko jarduera-protokolo bat prestatzea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak lanpostu jurisdikzional bat osasun-arrazoiengatik egokitzea erabakitzen duenean.
- Prozedura judizial digitala ezartzearen ondoriozko arriskuen aurrean berriazko babes-neurriak jartzeko eskatzea, arrisku psikosozialei buruz lortzen den informaziotik abiatuta.
- Karrera Judizialeko kideei (bereziki Guardia-zerbitzuetan daudenei) Larrialdietako Sare Judizialaren berri ematea. Sare hori Sara Carrión

eta Eva Cerrón magistratuek osatzen dute, eta haren funtzioa da laguntza teknikoa ematea hala eskatzen duten gobernu- eta jurisdikzio-organoei, eta, batez ere, larrialdi- eta katastrofe-egoeretan esku hartu behar duen guardiako funtzioetan ari den epaileari.

- Larrialdiak eta Hondamendiak Kudeatzeko Adituen Sare Judiziala osatzen duten magistratuak Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren eta Larrialdien egituraren sar daitezen ahalbidetzea. Sare Judizialaren helburuetako bat da ziurtatzea koordinazio egokia izango dela jarduketa judizialaren eta administrazio-agintaritzaren eskudunei dagokienaren artean, aktibatzen den Babes Zibileko Planaren antolamendu-egituraren integratuz, hala dagokionean. Eskaera egin da eta erantzunaren zain dago.
- Euskal Herriko Auzitegi Medikuntzako Institutuaren, Ertzaintzaren, Guardia Zibilaren eta Polizia Nazionalaren jarduketa bateraturako protokolo bat idaztea sustatzea, biktima anitzeko katastrofeen kasuetarako. Hainbat bilera egin dira, eta protokoloaren testua prestatzen ari dira.

8.8. 2026. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- *Laneko arriskuen prebentzioaren arloko koordinazioa sustatzea Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren artean, LAPLren 24. artikuluan aurreikusitakoaren babesean. Laneko arriskuen arloan prebentzio-neurri espezifikoak ezartzea izango litzateke helburua, bai eta batera jarduteko prozesu bat antolatzea ere erreakzioaren eremuan.*

- *Larrialdiak eta Hondamendiak Kudeatzeko Adituen Sare Judiziala osatzen duten magistratuak Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren eta Larrialdien egituran sar daitezen lortzea. Sare Judizialaren helburuetako bat da ziurtatzea koordinazio egokia izango dela jarduketa judizialaren eta administrazio-agintaritza eskudunei dagokienaren artean, aktibatzen den Babes Zibileko Planaren antolamendu-egituran integratuz, hala dagokionean.*
- *Euskal Herriko Auzitegi Medikuntzako Institutuaren, Ertzaintzaren, Guardia Zibilaren eta Polizia Nazionalaren jarduketa bateraturako protokolo bat idaztea, biktima anitzeko katastrofeen kasuetarako.*

9- JUSTIZIA, GIZARTE ELEBIDUNEAN

9.1.- 2021. URTEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN PLANTEAMENDUA

Ordenamendu juridikoak herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu ditu, eta eskubide horiek betetzen direla bermatu beharra ezarri dio Administrazioari: Espainiako Konstituzioaren 3.2 artikulua, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231.3 artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. artikulua, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legea eta 1992ko urriaren 2ko Eskualde edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Gutunaren 9. artikulua (Espainiaren berrespen-tresna 2001eko irailaren 15ean argitaratu zen BOEn). Plano horretan funtsezkoa da, Euskal

Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako Hizkuntza Normalizatzeko 2011-2020 Plan Orokorren helburu eta ildo estrategikoetan definitu zen bezala, 2021aren ondorengo urteetarako diseinatu beharreko Planean gauzatu beharreko helburuak eta estrategiak diseinatzeko egin beharreko lana, aurreko Plana ebaluatu ondoren. Ildo estrategikoak hemen: ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuan jasotakoak, 2010eko uztailaren 12ko EHAA. 2021ean egindako ebaluazioaren ondoren, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Justizia Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Orokorra egin du 2023-2032 aldirako, funtzionarioen hizkuntza-eskakizunaren mugaketan helburu progresiboak lortzeko, epaileei hizkuntza-arloan prestakuntza emateko pizgarria emateko, komunikazio elebidunak areagotzeko, dokumentu elebidunak estandarizatzeko, epaiketetan euskarazko ahozketasuna hobetzeko, itzulpena hobetzeko, eta komunikazio digital elebiduna sustatzeko.

9.2.- 2022. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Autonomia Erkidego honen eremuan, Auzitegi Nagusiaren Presidentetzaren, Gobernu Salaren eta Gobernu Idazkaritzaren komunikazioak gaztelaniaz eta euskaraz egin daitezen sustatzea, prestazio-administrazioak eskura jarritako giza baliabideen eta baliabide materialen arabera.
- Konpromisoa: Auzitegi Nagusiak autonomia-erkidego honetan antolatzen, babesten, laguntzen edo parte hartzen duen ekitaldi eta ekimenei gaztelaniazko eta euskarazko zabalkundea ematea.
- Auzitegi Nagusiak antolatutako ekitaldiak pixkanaka gaztelaniaz eta euskaraz egitea.

- Euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara itzultzaile neuronal judizialaren planari laguntzea, espediente judizial digitalean integratutako tresna gisa, Justizia Administrazioako langileen eta Justizia Administrazioarekin lankidetzan diharduten erakundeen eskura dagoena.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari 2021-2025 aldirako Justizia Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta 2015-2020 urteetarako Normalizazio Planaren ebaluazio-txostena eskatzea.
- Avantius sistema elebitasunera egokitzea, herritarrak eta profesionalak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan sartu eta komunikatu ahal izan daitezen Justizia Administrazioarekin.

9.3.- 2023. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- 2021-2025 plangintza-aldirako Justizia Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta 2015-2020 aldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren ebaluazio-txostena jaso dugu.
- Gai hori Erakundearteko Batzorde Mistoaren aldizkako bileretan sartu dugu, egoeraren jarraipen bateratua egiteko.
- Edozein organo judizialen komunikazio publikoak, iragarkiak, abisuak, oharra eta kartelak, Euskal Autonomia Erkidegoko justizia-jauregietan idazteko garaian, euskaraz eta gaztelaniaz idazteko lana egin dugu, prestazio-administrazioaren eskura jarritako baliabide material eta pertsonalen arabera.

- Justizia Administrazioari esleitutako baliabide materialen eta giza baliabideen arabera, Batzordearen eta Osoko Bilkuraren gai-zerrendako puntuak eta bertan hartzen diren erabakiak bi hizkuntza ofizialetan idatzi.
- Akordioa, Euskararen Batzordeak euskarazko epaiketen proiektu pilotu bat egin dezan, borondatezkotasunaren eta legeak aurrez ezarritako epaile arruntaren printzipioen arabera.

9.4.- 2024. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Epaiaketan eta agerraldi judizialean euskararen erabilera sustatzeko euskarazko epaiketen proiektu pilotua onartzea eta gauzatzea.
- Komunikazio-estrategia elebiduna sendotzea AVANTIUS kudeaketa prozesaleko sisteman, bai eta herritarrek Justizia Administrazioarekin egoitza judizial elektronikoaren bidez dituzten komunikazioetan ere.
- Ahalegina egitea Euskal Autonomia Erkidegoko justizia-jauregi guztietako toki estrategikoetan herritarren hizkuntza-eskubideak azaltzen dituzten kartelak jartzeko, erakundeen arteko lankidetzarako mekanismoen bidez, indarrean dagoen estatuko eta autonomia-erkidegoko legerian aurreikusitakoaren arabera.

9.5.- 2024. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Bigarren fasea onartzea epaiketetan eta agerraldi judizialetan euskararen erabilera sustatzeko euskarazko epaiketen proiektu pilotuari. 2024ko urriaren 25eko osoko bilkuran egin zen.
- Komunikazio-estrategia elebiduna sendotzea AVANTIUS kudeaketa prozesaleko sisteman, bai eta herritarrek Justizia Administrazioarekin egoitza judizial elektronikoaren bidez dituzten komunikazioetan ere.

9.6.- 2025. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Euskarazko epaiketen proiektu pilotuaren bigarren fasea gauzatzea, proiektuan inplikaturako bederatzi organo judizialetan egindako proiektu bakoitzaren edukia zedarrituz.
- Euskarazko epaiketen proiektu pilotuen publizitatea, proiektu horien berri emanez zerikusia duten erakunde, organismo eta administrazio interesdunei, elkargo profesionali, Fiskaltzari, Estatuko Abokatutzari, sindikatuari, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, Eusko Jaurlaritzari, aldundiei, udalei, Euskal Herriko Unibertsitateari, Deustukoari eta interesa erakuts dezakeen beste edozeini. Erakunde publiko, profesional eta asoziatibo horiei eskatuko zaie proiektu pilotuen berri ematea dagokien antolakundean.
- Bereizgarriak jartzea euskarazko epaiketak egiteko prest dauden titularren organo judizialetan.
- Epaiketak euskaraz egiteko prest dauden epaileen zerrenda eguneratzea. Horretarako, kontsulta egingo zaie Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatzeagatik edo lehen destinoagatik sartzen diren epaileei, urte bakoitzaren amaieran egingo den kontsultaz gain.
- Jardunbide egokitze jartzea proiektu pilotuetan sartzen diren organo judizialek, hartzen duten lehen ebazpenean –demanda onartzeko dekretua edo antzeko beste bat–, eta hainbat inguruabar direla eta duten irizpidearen arabera –auziaren zailtasuna, alderdien kopurua, hirugarrenen esku hartzeko aukera...–, alderdi guztiak jakinaren gainean jar ditzatela epaiketa osorik euskaraz egitea eskatzeko aukera dutela, eta epe bat jar dezatela –15 egun ingurukoa iradokitzen da–, alderdiek egokitze jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten eta organoaren titularrak bidezko jotzen duena erabaki dezan.
- Proiektu pilotuaz landa, eta izaera orokorrarekin beraz, prestazio-administrazioari helaraziko zaio, BJLOren 434 bis artikuluen arabera, itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak indartu beharra, hauek bermatu ahal izateko, inolako kosturik gabe eta eraginkortasun eta azkartasunez: defentsa-eskubidearen titularrei dagokienez, azaroaren 11ko 5/2024 Lege Organikoaren 11. artikuluan aitortutako eskubidea, eta, gainerako esku-hartzailei dagokienez, BJLOren 231. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Lege autonomikoaren 9. artikuluan xedatutakoa.
- Pertsonen, gure ordenamendu juridikoan jasotako aurreikuspenen arabera, Justizia Administrazioarekiko harremanetan dituzten hizkuntza-eskubideei buruzko gida bat egitea eta zabaltzea.

9.7. 2025. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Euskarazko epaiketen proiektu pilotuaren bigarren fasea gauzatzea, proiektuan inplikaturako bederatzi organo judizialean egindako proiektu bakoitzaren edukia zedarrituz.
- Euskarazko epaiketen proiektu pilotuen publizitatea, proiektu horien berri emanez zerikusia duten erakunde, organismo eta administrazio interesdunei, elkargo profesionalei, Fiskaltzari, Estatuko Abokatutzari, sindikatuari, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, Eusko Jaurlaritzari, aldundiei, udalei, Euskal Herriko Unibertsitateari, Deustukoari eta interesa erakuts dezakeen beste edozeini. Erakunde publiko, profesional eta asoziatibo horiei eskatuko zaie proiektu pilotuen berri ematea dagokien antolakundeetan.
- Jardunbide egokitzat jartzea proiektu pilotuetan sartzen diren organo judizialek, hartzen duten lehen ebazpenean –demanda onartzeko dekretua edo antzeko beste bat–, eta hainbat inguruabar direla eta duten irizpidearen arabera –auziaren zailtasuna, alderdien kopurua, hirugarrenek esku hartzeko aukera...–, alderdi guztiak jakinaren gainean jar ditzatela epaiketa osorik euskaraz egitea eskatzeko aukera dutela, eta epe bat jar dezatela —15 egun ingurukoa iradokitzen da—, alderdiek egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten eta organoaren titularrak bidezkoztat jotzen duena erabaki dezan.
- Proiektu pilotuaz landa, eta izaera orokorrarekin beraz, prestazio-administrazioari helaraziko zaio, BJLOren 434 bis artikulua arabera, itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak indartu beharra, hauek

bermatu ahal izateko, inolako kosturik gabe eta eraginkortasun eta azkartasunez: defentsa-eskubidearen titularrei dagokienez, azaroaren 11ko 5/2024 Lege Organikoaren 11. artikuluan aitortutako eskubidea, eta, gainerako esku-hartzaileei dagokienez, BJLOren 231. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Lege autonomikoaren 9. artikuluan xedatutakoa.

9.8.- 2026. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- *Pertsonak, gure ordenamendu juridikoan jasotako aurreikuspenen arabera, Justizia Administrazioarekiko harremanetan dituzten hizkuntza-eskubideei buruzko gida bat egitea eta zabaltzea.*
- *Udaleko Bulego Judizialean euskarazko jarduketak sustatzeko programa, indarrean dagoen legedian aurreikusitako baldintzetan, eta, bereziki, lehendik dagoen mapa soziolinguistikoaren arabera euskara gehiago erabiltzen den udalerrietan.*
- *Euskarazko epaiketen proiektu pilotuarekin jarraitzea.*

10.- JUSTIZIA, BERDINTASUNAREN ALDE

10.1.- 2021. URTEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN PLANTEAMENDUA

Berdintasuneko ordezkariarekin koordinatutako jarduera baten bidez, Karrera Judizialeko II. Berdintasun Plana EAEn aplikatzea sustatzeko, Gobernu Salak honako hauek egin ditzake:

- II. Berdintasun Plana hedatzeko zereginean laguntzea.
- Bizitza pertsonala, familiakoa eta profesionala uztartzeko hartzen diren neurriak berariaz argitaratzea.
- Familia zaintzearekin zerikusia duten baimenak emateko irizpideak bateratzea. Horretarako, egokia da, ahal denean, alde aurreko txostena eskatzea berdintasuneko ordezkariari.
- Prestakuntza deszentralizatuko planean sartzea zeharkako prestakuntza-jarduerak honako arlo hauetan: berdintasuna, genero-estereotipoak hautematea eta gainditzea, genero-ikuspegiarekin epaitzea.
- Bere eskumenen neurrian, jurisdikzio-funtzioaren egikaritzea egokitzea haurdunaldiko edo eradoskitze naturaleko behar espezifikoetara. Horretarako, egokia da, ahal denean, alde aurreko txostena eskatzea berdintasuneko ordezkariari.
- Parekotasuna bermatzea ordezeko magistratuen eta ordezeko epaileen ebaluazio-batzordeen osakeran, bai eta Gobernu Salaren ekitaldi publikoetan ere.
- Berdintasuneko ordezkariak egiten dituen sentsibilizazio-kanpainetan laguntzea, gobernu-karguetan emakumeen presentzia orekatua ahalbidetzeko.

- Berdintasuneko ordezkariari dekanotzetarako eta gobernu-saletarako hauteskundeetarako deialdiaren berri ematea, kargu horietara emakumezkoak aurkez daitezzen sustatzeko.

10.2.- 2022. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- II. Berdintasun Planaren hedapena
- Berdintasun Ordezkaritzaren parte-hartzea lana eta familia-bizitza bateragarri egiteko baimenei eta eradoskitze-baimenei buruzko erabakiak hartzean.
- Prestakuntza-plan deszentralizatuan genero-ikuspegiarekin epaitzeari buruzko jarduera bat sartzea.
- Ordezko magistratuen eta epaileen ebaluazio-batzordeko parekotasuna hobetzea, bai eta Gobernu Salaren ekitaldi publikoetakoa ere.

10.3.- 2023. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Karrera Judizialeko Berdintasun Plana zabaltzea, Madrilen 2023ko otsailaren 14rako deitutako bilera egin ondoren, aurreko urteetan ez baita egin, pandemiagatik.
- Gurasoen erantzukidetasuna berdintasunez banatzeko eta bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko lizentziak eta baimenak emateko lurralde-eremu honetako epaileek eskatuta egin izan diren txostenak egiten jarraitzea.
- Izaera monografikoa eta zeharkako edukiak izango dituen prestakuntza-jarduera deszentralizatu bat proposatzea honako

arlo hauetan: berdintasuna, genero-estereotipoak hautematea eta gainditzea, genero-ikuspegiarekin epaitzea, familia-erantzukidetasuna eta pertsonen arteko gatazken konponbide baketsua.

- Honako kexa edo erreklamazio hauek jasotzea: jurisdikzioz kanpoko jarduketa judizial sexistengatik, diskriminatzaileengatik, desagokiengatik edo, edozein modutan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren kontrakoengatik jarduera horiek zuzenean eragiten dieten pertsonak, haien senideek, legezko ordezkariak edo haien defentsa edo ordezkaritza esleituta duten abokatuek, prokuradorek edo lan-harremanetako gradudunek aurkeztutakoak.

10.4.- 2024. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Kontseiluaren izendapen diskrezionaleko karguetan, gobernu-karguetan edo izendapen diskrezionaleko beste postu batzuetan emakumeen presentzia orekatuaren defizitaren aurka borrokatzeko, sentsibilizazio-kanpainak egitea karrera judizialeko emakume lankideen artean, kargu horietara aurkez daitezen bultzatzeko. Horretarako, behar-beharrezkoa izango da, edozein hauteskunde-deialdi irekitzen denean, horren berri ematea, funtzioak prestatzeko behar besteko denborarekin.
- Berdintasunari buruzko diagnostikoa egitea lurraldeari atxikitako karrera judizialeko kideen artean. Aurretiko diagnostiko horretan oinarrituta, beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaileak hartzeko mekanismoa edo protokoloa proposatzea.

10.5.- 2024. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Gobernu-karguetarako edozein hauteskunde-deialdiren berri ematea, funtzioak prestatzeko denbora nahikoarekin.
- Kanpoko ordezkapen-irizpide gisa sartzea lana eta familia bateratzeko arrazoiengatik lanaldia murrizteko kasuak, 2/2011 Erregelamenduaren 223. artikuluko e), f), g) eta h) letretan deskribatutakoak.

10.6.- 2025. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Karrera Judizialeko Berdintasun Planaren esparruan gomendatutako ekintzekin jarraitzea.
- Kontseiluaren izendapen diskrezionaleko karguetan, gobernu-karguetan edo izendapen diskrezionaleko beste postu batzuetan emakumeen presentzia orekatuaren defizitaren aurka borrokatzeko, sentsibilizazio-kanpainak egitea karrera judizialeko emakume lankideen artean, kargu horietara aurkez daitezen bultzatzeko. Horretarako, behar-beharrezkoa izango da, edozein hauteskunde-deialdi irekitzen denean, horren berri ematea, funtzioak prestatzeko behar besteko denborarekin.
- Berdintasunari buruzko diagnostikoa egitea lurraldeari atxikitako karrera judizialeko kideen artean. Aurretiko diagnostiko horretan oinarrituta, beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaileak hartzeko mekanismoa edo protokoloa proposatzea.

10.7.- 2025. URTEAN EGINDAKOAREN DESKRIBAPENA

- Karrera Judizialaren Berdintasun Planaren esparruan Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak gomendatutako ekintzak ezartzea, EAEANren eskumenen barruan.
- Kontseiluak gobernu-karguak edo diskrezioz izendatzeko beste postu batzuk izendatzeko deialdiak ireki dituela komunikatzea, eta karrera judizialeko kideen artean sentsibilizazio-kanpainak egitea kargu horietara aurkez daitezen sustatzeko.

10.8.- 2026. URTERAKO JARDUKETA-PROPOSAMENA

- *Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Karrera Judizialeko Berdintasun Planaren esparruan gomendatutako ekintzekin jarraitzea.*
- *Berdintasun-bozeramaileari txostena eskatzea, bularra emateagatiko arriskuagatiko aparteko lizentzia-eskaeretakako edo bizitza pertsonala eta familia-bizitza bateratzearekin lotutako beste lizentzia batzuetarako.*
- *Berdintasun-bozeramaileari txostena eskatzea, gobernu-neurriak hartzeko jurisdikzio-lanpostua egokitu behar denean, neurri horiek bizitza profesionala, pertsonala eta familia-bizitza bateratzean oinarritzen badira.*
- *Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Karrera Judizialeko kideen arteko berdintasunari buruz egiten duen azterlanean laguntzea.*

- *Prestakuntza deszentralizatuaren esparruan berdintasunari buruzko ikastaro espezifikoak proposatzea, bai eta berdintasunaren trataera zeharkako moduan sartzeari ere prestakuntza-eduki guztietan.*
- *Hizkera inklusiboak Avantius prozesu-kudeaketarako sisteman dauden formularioetan duen presentzia analizatzea.*